

Bezeroari Atentzioa
902 20 21 50

BIZKAIA

Bilbo

Bulego Nagusia
Máximo Aguirre, 18 bis
T. 902 20 21 50
Vicente San Sebastián Klinika
Rafaela Ibarra, 25
Virgen Blanca Klinika
Maestro Mendiri, 2
Aseguru Zentroa "El Corte Inglés"
Gran Via, 7
T. 94 424 42 13

Barakaldo

Bide Onera
Avda. de la Libertad, 1 - 5º
T. 902 10 70 30

Durango

Salbigain, 1 bajo
T. 94 620 14 83

Gernika

Abautza, 2 - bajo
T. 94 625 65 65

Getxo

Gobela, 1
T. 94 480 15 21

Lekeito

Juan Bautista Eguzkitza, z/g
T. 94 684 20 90

ARABA

Gasteiz

Avda. Gasteiz, 39
T. 945 23 02 12

GIPUZKOA

Donostia

Ramon M^o Lili, 3 - 4
T. 943 32 21 00

Eibar

Chiquito de Eibar, z/g
(Torre de Urzagai)
T. 943 20 04 14

www.imq.es

2009ko urtarriako edizioa

Osasun Asistentziaren Asegurua

Baldintza Orokorrak
2009eko EREDUA



Osasun Asistentziaren Asegurua

Baldintza Orokorrak

2009eko EREDUA



Osasun Plangintzako Zuzendaritza Nagusian 230 zenbakiarekin erregistraturik. Hazienda Ministerioko Entitate Aseguratzailleen Erregistro Berezian 1960ko apirilaren 28ko A.M.ak inskribatuta (1980ko maiatzaren 21eko E.B.O.). Legeak markatzen dituen gordailuak eraturik. Erreserba Osoa Espainian.

aurkibidea

Osasun Asistentziaren Asegurua

1. Artikulua	Aurretikoa	05
2. Artikulua	Definizioak	05
3. Artikulua	Kontratuaren Oinarriak	08
4. Artikulua	Aseguruaren xedea	09
5. Artikulua	Estalduraren deskripzioa. Estaldutako arriskuak	09
	Clásica Modalitatea	15
	ORO Modalitatea	15
6. Artikulua	Kanpoan geratzen diren arriskuak	21
7. Artikulua	Gabezia Aldiak	24
8. Artikulua	Estaldura xede diren zerbitzuak bereganatzea	24
9. Artikulua	Sariaren Ordainketa	26
10. Artikulua	Polizaren baldintza ekonomikoak urtero eguneratzea	27
11. Artikulua	Hartzailearen edota Aseguratuaren gainerako obligazioak, kargak, betebeharrak edo ahalmenak	28
12. Artikulua	Aseguratzailaren eta Aseguratuaren beste betebehar batzuk	30
13. Artikulua	Aseguruaren iraupena	30
14. Artikulua	Kontratuaren hausketa eta ezbai gabetasuna	31
15. Artikulua	Izaera Pertsonaleko Datuen Tratamendua	32
16. Artikulua	Kontrola eta erreklamazio eskaerak	32
17. Artikulua	Jakinarazpenak	33

Aseguru Osagarria IMQ Renta

Eguneroko errenta ospitalizazioagatik eta indemnitazioa ebakuntza kirurgikoagatik.

1. Artikulua	Aurretikoa. Aseguru bataren eta bestearen artikulu komunak	37
2. Artikulua	Definizioen hedapena	37
3. Artikulua	Aseguruaren xedea	38
4. Artikulua	Aseguragarri ez diren pertsonak	38
5. Artikulua	Kanpo geratzen diren arriskuak	39
6. Artikulua	Estalduraren deskripzioa. Estaldutako arriskuak	39
7. Artikulua	Indemnitazioen kopurua	40
8. Artikulua	Gabezia Aldiak	40
9. Artikulua	Lurralde eremua	40
10. Artikulua	Ezbeharrak: Jakinarazpena, ondorioak eta indemnitazioa	41
11. Artikulua	Izaera Pertsonaleko Datuen Tratamendua	42
12. Artikulua	Ebakuntza kirurgikoagatik indemnitazioak	43

Osasun Asistentziaren Asegurua

Zerbitzu osoak
Ordainketa ekintza medikoagatik
Medikuaren aukeraketa librea
Aseguratuaren partaidetza zerbitzuen kostuan.

1. Artikulua

Aurretikoa

Kontratu hau arautzen dute Aseguruaren Kontratuari buruzko urriaren 8ko 50/1980 Legean xedatuak (urriaren 17ko E.B.O.), urriaren 29ko 6/2004 Errege Dekretu Legegileak onaturiko Aseguru Pribatuaren Antolaketari eta Ikuskapenari buruzko Legearen Testu Bateratuan xedatuak (azaroaren 5eko E.B.O.) eta Kontratu honetako Baldintza Orokorretan eta Partikularretan berbatzen denak, eta ez dute baliorik izango Aseguratuen eskubideak mugatzen dituzten klausulak aipatu aseguratuek beren beregi ez badituzte onartzen bederen, hala nola Baldintza Partikularren itun osagarriak. Aipatu onarpen horren premiarik ez dute izango aginduzko legezko aginduen transkripzioak edo erreferentziak.

2. Artikulua

Definizioak

Kontratu honen ondorioetarako, hau izango da hurrengo hitzen esanahia:

Istripua

Kausa bortitz, ezusteko eta kanpokoak eragindako gorputzeko lesioa, Aseguruaren asmorik bakoa eta Kontratua indarrean dagoela gertatua.

Aseguratua

Asegurua ezartzen zaion/zaien eta, Hartzaillearen faltan, Kontratutik eratorritako betebeharrak berengan hartzen dituen/dituzten pertsona fisikoa edo pertsona fisikoak.

Aseguratzailerak

Kontratuaren bidez itunduriko arriskua beregan hartzen duen pertsona juridikoa. Poliza honetan Iguatorio Médico Quirúrgico, S.A. de Seguros y Reaseguros, aurrerantzean Aseguratzailerak.

Zerbitzuen katalogoa edo Koadro Medikoa

IMQren beraren edo itunduta dauzkan osasun arloko profesionalen eta establezimenduen zerrenda editatua, helbidea, telefonoa eta ordutegia adierazita. Aseguru honen ondorioetarako, IMQren koadro medikotzat hartzen dira bai zuzenean lan egiten duen tokian bai beste aseguru etxe batzuekiko itun bidez egiten duenetan. Zerbitzuen katalogo bakoitzean, probintziako osasun profesionalen eta establezimenduen zerrendaz gain, aseguruarentzako argibide zerbitzuak eta arretarako telefonoak ere azaltzen dira, estatu osokoak.

Kopagoa

Zerbitzuen ordainketan Aseguratuak daukan partaidetza.

Baldintza Partikularrak

Aseguratzen den arriskuaren alderdiak zehazten eta xeheki azaltzen dituen eta Polizan sartzen den dokumentua.

Osasunari buruzko galdesorta

Hartzailleak edota Aseguratuak Poliza egin aurretik egin eta sinaturiko aitortpena eta Aseguruari balioko diona Aseguruaren xedea den arriskua baloratzeko.

Sariaren Sortzapena

Saria eratzen duen diru kopuruaren osotasunak Hartzailera Aseguratuzailearen zordun bihurtzen duen unea da. Lehenengo Saria Asegurua kontratatzen den unean sortzen da. Bigarren Saria eta Hurrengoak, ostera, Aseguruaren Kontratua tazituki edo berariaz luzatzen den urtealdi bakoitzaren hasieran sortzen da.

Gaixotasuna

Istripuak eragindakoak ez diren Aseguratuaren osasunaren aldaketa mota guztiak, medikuak diagnostikatuak, osasun asistentzia prestatu behar dutenak eta lehen agerpenak Kontratua indarrean dagoela izan dituztenak.

Sortzetiko gaixotasuna, lesioa, akatsa edo malformazioa

Herentziako faktoreen ondorioz edo haurdunaldian zehar jaiotza unera arte eskuratutako eritasunen baten ondorioz jaio zen unetik dagoena da. Sortzetiko eritasuna ager edo ezagut daiteke jaiotze unean bertan edo geroago aurki daiteke, Aseguratuaren bizitzako edozein unetan.

Aurretik den gaixotasuna

Aseguratuak Aseguruaren kontratazio data baino lehenagotik edo Polizan alta eman aurretik jasaten duena da.

Sariaren Ordainketaren zatikapena

Aseguratuzailearen eta Hartzailerearen artean, eta bigarrenaren onerako, Baldintza Partikularretan jar daitekeen ordainketa erraztasuna, hurrengo honetan datzana, hots, Sari osoaren edo zati baten ordainketa sortzapen unea baino atzerago ordaintzeko posibilitatean alegia. Sariaren ordainketa zatitzeko ahalbideak inola ere ez du esan gura Saria zatigarria denik.

Frankizia

Aseguratuak Aseguratuzaileari ordaindu behar dion zenbatekoa erabilitako osasun zerbitzuetako baten orde. Aipatu zenbateko hori ezberdina da osasun zerbitzu edota espezialitate mediko mota ezberdinen arabera eta bere kopurua, Baldintza Partikularretan zehazturik datorrena, urtero eguneratu ahal izango da Baldintza Orokorretako 10. Artikuluan, "POLIZAREN BALDINTZA EKONOMIKOEN URTEROKO EGUNERAPENA" deritzon, ezarritakoaren arabera.

Ospitalea

Gaixotasunak eta gorputz lesioak tratatzeko baimen legala duten eta diagnostikoak eta ebakuntza kirurgikoak egiteko baliabideak, araubide anbulatorioan edo barnerapenekoan, dauzkaten establezimendu publiko edo pribatu guztiak. Establezimendu horretan mediku batek eguneko 24 orduetan egon behar du zaintzen, eta gaixoei eta lesiodunei baino ez zaie utziko bertara sartzen.

Polizaren ondorioetarako ez dira hartuko ospitaletzat: hotelak, atsedenlekuak edo eriondo-etxeak, gaixotegiak, gaixotasun kronikoak tratatzen, alkoholismoa edo beste drogamenpekotasun mota batzuk tratatzen edota desohitzen bereziki dedikaturiko instalazioak.

Ospitalizazioa

Kontratua indarrean dagoen garaian lagun bat Ospitale batean gaixo bezala erregistratuta agertu eta ospitaleko ohe bat okupatuta gaua pasatzea.

Ebakuntza kirurgikoa

Helburu diagnostikoak edo terapeutikoak dituen edozein ebakuntza, ebakiduraz edo barneko esku-

harterako beste modu batez zirujau batek baimendutako zentro batean (ospitalea edo ospitalez kanpokoa) egindakoa, eta gehienetan ebakuntza gela erabili beharra dakarrena.

Material ortopedikoa

Gorputzeko itxuragabetasunak prebenitu edo zuzentzeko erabilitako pieza anatomikoak edo edozein izaeratako elementuak.

Osteosintesi materiala

Apurtutako hezuraren bi hertzak lotzeko edo hertz artikularrak soldatzeko erabilitako pieza edo elementu metalikoak edo beste edozein izaera motakoak.

Medikua

Medikuntzan lizentziaduna eta medikuntza burutzeko legez gaiturik dagoena.

Gabezia Aldia

Polizaren garantien baitan sarturik dauden estalduretariko batzuk eragingarriak ez diren denboraldia. Denboraldi hau hilabetetan zenbatzen da Poliza indarrean hasi den datatik eta sarturik dauden Aseguratu bakoitzarentzat.

Eztabaidagarritasun Aldia

Poliza indarrean hasi den datatik polizan sarturik dauden Aseguratu bakoitzarentzat kontatutako denbora tartearen zehazketan Aseguratuak prestazioen estaldurari uko egin diezaiokeen edo Kontratua ihardets dezakeen, Aseguratuak gaixotasunak aurretik izan eta Osasunari buruzko Galdesortan ez dituela aitortu alegatuta. Hartzaiak edota Aseguratuak engainuz jokatu baldin badu, Aseguratuak ahalmen hori izango du epealdi hori igarota ere.

Poliza

Asegurua arautzen duten klausulak eta itunak dituen dokumentua. Polizaren zati osagarriak eta banaezinak hauek dira: Baldintza Orokorrak, arriskua bakoizten duten Partikularrak, Bereziak, baleude, eta osatzeko edo aldatzeko jartzen zaizkion Osagarriak edo Gehigarriak.

Prestazioa

Kontratua indarrean den bitartean estalduraren xede den ezbeherra gertatuz eratorriko osasun asistentziaren kostua bereganatzea da.

Saria

Aseguruaren prezioa. Saria bakarra, urtekoa eta alde aurretik ordaintzekoa da. Hala ere, zatika ordaintzea itundu ahal izango da, baina horrek kasu batean ere ez du esan gura izango bere izaera banaezina eta urtekoa zatitu egiten denik.

Lehenengo Saria hurrengo da, hots, Aseguruaren Kontratazio dataren eta hasieran aurreikusitako indarreko epearen amaieraren artean dagoen aseguru aldiari dagokiona, kalterik egin barik kontratu egile bien artean elkarren arteko adostasunaz egindako luzapenei, isilpekoei edo berariazkoiei. Arau orokor bezala, Lehenengo Saria Aseguruaren kontratazio datatik urte bereko abenduaren 31ra arte Aseguratuak ematen dion arrisku estalduragatik Polizaren Hartzaiak egiten duen kontraprestazioa izango da.

Bigarren Saria eta Hurrengoak, luzapen tazituen edo berariazkoen ondorioz indarrean jarraitzen duen aseguratutako bigarren urtealdiari eta hurrengo urtealdiei dagozkienak dira.

Saria urtero eguneratu ahal izango da Baldintza Orokorretako 10. Artikuluan, "POLIZAREN BALDINTZA EKONOMIKOEN URTEROKO EGUNERAPENA" deritzonean, ezarritakoaren arabera.

Protesia

Lesionaturiko organo, aparatu edo sistema baten falta (osoa edo zati batena), funtzio fisiologikoa denez, denboraldi batean edo iraunkorki ordeztzeko erabiltzen diren edozein izaerako elementu guztiak.

Ezbeharra

Polizak osorik edo zati batean estaltzen dituen osasun zerbitzuak erabiltzea beharrezko egiten duten ondorioak dituen gertaera.

Aseguratuaren Txartela

Aseguratuaren jabetzako agiria, polizan sartuta aseguru bakoitzari luzatu eta ematen zaiona; txartela pertsonala eta eskualdaezina da, eta polizak estaltzen dituen zerbitzuak jasotzeko erabili behar da.

Hartzailea

Igualatorio Médico Quirúrgico, S.A. de Seguros y Reaseguroekin batera Kontratu hau sinatu eta bertan ezartzen diren betebeharrak, izaeraz Aseguratuak berak bete behar dituenak salbu, bereganatzen dituen pertsona fisikoa edo juridikoa.

Larrialdia

Osasunean kalte konponezina ez gertatzeko asistentzia medikoa bat-bateko izaeraz beharrezkoa egiten duen Aseguratuaren egoera.

Hil edo biziko larrialdia

Lagun baten bizitza hurreko arriskuan jartzen duen eta berehalako jokaera medikoa behar duen egoera.

3. Artikulua

Kontratuaren oinarriak

Aseguratuak betetzeko Hartzaileari edo Aseguratuari ematen dion Osasunari buruzko Galdesortaren eta Aseguru Eskaearen arabera Hartzaileak edota Aseguratuak egindako aitopenei eta Poliza honek osotasun bakar bat eratzen dute, eta Aseguratuak arriskua, hortik beretzat eratorzen diren betebeharrak eta Sariaren kopuruaren zehaztapena onartzeko oinarri dira.

Ondorioz, kontratatutako baldintzak hauek dira, hots, Aseguratuak bere kontura onartzea alde aurreko azterketa medikoa edota Aseguratuak ezarritako Osasunari buruzko Galdesorta/Aitorpena betetzea. Aseguratuak, hala ere, kasu guztietan gordetzen du beretzat kontratatutako askatasuna.

Aseguratzeko adin muga hirurogeita bost urte dira.

Aseguratuak Hartzaileari eman beharko dio Baldintza Orokorrek, Partikularrek eta Bereziek, baleude, osaturik egongo den Poliza eta Aseguratuaren Txartela.

4. Artikulua **Aseguruaren xedea**

Polizak hitzartutako mugen eta baldintzen barruan, eta une bakoitzean tokatzen diren Saria, elkarren artean egin beharreko ordainketak eta frankiziak pagatu ondoren, Aseguratzailerak zuzenean hartuko du beregain tokatzen den asistentzia medikoa, ospitalekoa eta kirurgikoa, 5. Artikuluan bildutakoan artean kontratatutako Modalitatearen estalduran sarturiko espezialitateetan, osasun prestazioetan eta beste zerbitzuetan hartzen diren mota guztietako lesioak edota gaixotasunak, asistentzia prestatzen duten profesionaleri eta Osasun Zentroei ordainsariak eta zerbitzuen tarifak zuzenean ordainduta.

Dena den, Aseguruaren Kontratuari buruzko Legeko 103. artikulua xedatzen duen arabera, Aseguratzailerak beregain zuzenean hartzen du larrialdi izaeraz behar den asistentziaren kostua, Polizaren baldintzetan aurreikusitakoaren arabera.

Aseguruak estalitako asistentzia Aseguratzaileraren Mediku Taldeak baino ez du burutuko eta Aseguratzailerak berak itundutako Zentroetan.

Kontratu honek Poliza indarrean jartzen den unean erabiltzen diren teknologia eta metodologia medikoa bermatzen ditu. Aseguruaren estalduran ez dira sartuko tratamendu mediko, kirurgiko eta diagnostikoetarako ekartzen diren teknologia berriak, Aseguratzailerak Baldintza Orokorretan berriaz adierazi eta sarien tarifetan behar diren egokitzeak egin arte.

Aseguratuak estalduraren xede den osasun asistentziaren zerbitzuak prestatzearen orde kasu batean ere ezingo du eskatu hautazko indemnizazioak eskudiruz ordaintzea, eta ezta Aseguratuak zuzenean ordaindutako gastu mediko edo ospitalekoak itzultzea ere.

5. Artikulua **Estalduraren deskripzioa. Estaldutako arriskuak**

Polizaren estaldura zehatzean adierazitako espezialitateak, osasun prestazioak eta estaldutako gainerako zerbitzuak, hurrengo hauek dira, hots, kasu bakoitzean Baldintza Partikularretan aipatzen direnak eta etorkizunean, kasu bakoitzean dagokion sari gehigarria aplikatuta, gehi daitezkeenak, hurrengo Modalitateetarako batean oinarrituta:

Clásica Modalitatea

Ondoren berriaz aipatzen diren prestazioak hartzen ditu:

I. Lehen Mailako Atentzioa

Medikuntza Orokorra edo Familiakoa

Konsultan eta etxean.

Pediatria

Konsultan, 14 urtera arte.

A.T.S./D.U.E. (Erizaina)

Kontsultan eta etxean.

II. Espezialitateak

Alergologia

Analisi Klinikoak

Anatomia Patologikoa

Anestesia eta Erreanimazioa

Digestio Aparatua

Kardiologia

Kirurgia Kardiobaskularra

Kirurgia Orokorra eta Digestio Aparatuarena

Kirurgia Maxilo-Faziala

Kanpo geratzen dira hezur txertaketak eta txertaketa osteointegratuak, protesiak eta tratamendu periodontalak, eta orobat eskatutako eta helburu horietara destinaturiko azterketa diagnostikoak eta gainerako teknikak.

Kirurgia Pediatrikoa

Kirurgia Plastiko Konpontzailea

Estetiko hutsa kanpo geratzen da.

Kirurgia Torazikoa

Dermatologia eta Benereologia

Irudi bidezko Diagnostikoa

Ohiko Teknikak estaltzen ditu, hala nola Erradiologia Orokorra, Ekografiak, Mamografia Konbentzionalak eta Hezur Dentsitometria **(1)**. Kontraste baliabideak Aseguratzailaren kontura izango dira.

Endokrinologia eta Nutrizioa

Ginekologia eta Obstetrizia

Barnean hartzen ditu DIUren ezarpena **(1)** (Aseguratuaren kontura izango da dispositiboaren kostua), ernalezintasunaren eta antzutasunaren azterketa eta diagnostikoa **(1)** eta Tronpen lotura **(1)**.

Hematologia eta Hemoterapia

Barne Medikuntza

Mikrobiologia eta Parasitologia

Nefrologia

Hemodialisia kanpo geratzen da, hala prozesu akutuetan nola kronikoetan.

Neumologia

Asma eta arnas alergia. Ez dago sartuta loaldiko arnasketa nahasketen tratamendua, CPAP eta BIPAP.

Neurokirurgia

Kanpo geratzen dira Erradiokirurgia edo Kirurgia Estereotaxikoa, Parkinsonaren kirurgia eta Epilepsiaren Kirurgia.

Neurofisiologia Klinikoa

Kanpo geratzen da buru kartografia (Mapping).

Neurologia

Odontologia

Hurrengo hauek baino ez daude estalita, hots; sendabide estomatologikoak eta erauzketak, aho garbiketak eta horietarako behar diren erradiografiak.

Sendabide Estomatologikoaren kontzeptuan ez dira sartzen ez Kirurgia periodontala ez tratamendu periodontala: arraspateak eta berdintzeak.

Oftalmologia

Betzuringoaren transplantea barne **(4)** (transplantatu beharreko betzuringoa Aseguratuaren kontura izango da). Kanpoan geratzen dira hurrengo hauen guztien zuzenketa, hots, miopiarena, Astigmatismoarena, Hipermetropiarena eta errefrakzioaren gainerako aldaketena, eta halaber edozein metodoz zein teknikaz egindako Terapia Fotodinamikoa ere.

Onkologia

Otorrinolaringologia

Psikiatria

Ez dira sartzen psikoanalisisa, terapia psikoanalitikoak, eta test psikologikoak. Kanpoan daude halaber hipnosia eta narkolepsia.

Erreumatologia

Traumatologia eta Kirurgia Ortopedikoa

Urologia

Barnean hartzen du basektomia **(1)**.

III. Ospitalizazioak

Ospitalizazio Medikoa (ebakuntza kirurgikorik gabea)

Estalduak hartzen duen ospitaleratzearen iraupena, gehienez ere, 50 egunekoa da urtean **(1)**.

Ospitalizazio Pediatrikoa (ebakuntza kirurgikorik barik)

Estaldurak hartzen duen ospitaleratzearen iraupena, gehienez ere, 50 egunekoa da urtean **(1)**. Era berean, barnean hartzen du neonatologia unitatean gehien 30 eguneko ospitalizazioa ere **(2)**.

Ospitalizazio Obstretikoa (Haurgintza)

Tokologoak eta emaginak zainduta, eta barruan hartzen du anestesia epidurala **(2)**. Aseguratzaileren kontura izango da era berean RHren kontrako txertoa ere **(2)**, haurra izan berri Kliniketan dagoen bitartean Aseguratuari ematen zaiona.

Ospitalizazio Psikiatrikoa

Estaldura xede den barnerapenaren iraupena urtean 50 egunera artekoa izango da, jarraian zein txandaka egina **(1)**. Kanpo geratzen dira toxikomanien edo drogamenpekotasunen eraginezko ospitalizazioak, eta halaber nortasunaren nahasteek eragindakoa ere. Bere izaeratik ez da sartzen laguntzailearen oherik.

Ospitalizazio Kirurgikoa

Estaldura xede den barnerapenaren iraupena asistentziaren ardura duen Medikuek erabakiko du Ospitalizazioaren premia teknikoak irauten duen bitartean **(1)**.

Ospitalizazioa Unitate Koronarioan (ebakuntza kirurgikorik barik)

Estaldurak hartzen duen ospitaleratzearen iraupena, gehienez ere, 50 egunekoa da urtean **(1)**. Bere izaeratik ez da sartzen laguntzailearen oherik.

Ospitalizazioa Zainketa Intentsiboetako Unitatean (ebakuntza kirurgikorik barik)

Estaldurak hartzen duen ospitaleratzearen iraupena, gehienez ere, 50 egunekoa da urtean **(1)**. Bere izaeratik ez da sartzen laguntzailearen oherik.

Ospitalizazioa, kasu guztietan, Hitzarturiko Zentroetan izango da, ohe bakarreko gelan eta barnean hartzen du janaria, sendakuntzak eta materiala, kirofano eskubideak, anestesia eta medikazioa. Barnean dago laguntzailearen ohea **(1)**, beren beregi baztertutako kasuetan izan ezik.

Ospitalizazio medikoen kasuetan (ebakuntza kirurgikorik gabekoetan) ezarritako mugak gainditzen direnean, Aseguratzailerek bere kargura ez ditu hartuko ordainsari medikoak, analisiak eta Modalitate bakoitzean sarturik dauden proba diagnostikoak baino.

Prozesu berriztat hartuko da alta datan kontaktzen hasi eta hurrengo hiru egunen ostean egindako barnerapen berria behar duen prozesua.

Etxeko Ospitalizazioa

Sarreraren ostekoa, Klinikako Ospitalizazioaren ordezkua edo segida denean eta gaixoaren ardura duen profesionalak agindua denean **(1)**.

IV. Beste Metodo Terapeutiko batzuk

Elektroterapia (1)

Uhin Laburra, Izpi Infragorriak, Izpi Ultramoreak, etab.

Fisioterapia eta Errehabilitazioa (3)

Soilik estaliko du lokomozio-aparatuaren errehabilitazioa. Ez daude sartuta mantenimenduko

terapiak eta okupazionalak, ez eta gaixotasun kroniko, jaiotzetiko, neurologiko eta endekapenezkoen errehabilitazioa ere.

Hemodinamika Baskularra (1)

Litotrizia (3)

Giltzurrunetakoa eta bixikakoa baino ez.

Logofoniatría (3)

Estalduraren barruko tratamenduetan urteko 90 saio sartzen dira. Kanpoan geratzen dira mintzairaren nahasteen prebentzioa, azterketa eta zuzenketa guztiak, jatorria edozein dela ere. Halaber, kanpoan geratzen dira ahotsaren erasanaren gaineko terapia eta mekanismoa sortzetiko patologietan, patologia psikikoetan, neurologikoetan eta endekapenezko patologietan, lehen nahiz bigarren mailako jatorrietan.

ABBI Mikrokirurgia (1)

Nutrizio Parenterala

Ospitalean.

Onkologia

- Kimioterapia, ambulatorioan eta ospitalean. Barnean hartzen du agindutako tumoreen kontrako medikazioa, merkatu nazionalean merkaturaturik baldin badago eta Osasun Asistentziako Zuzendaritza Nagusiak baimendurik badago **(1)**.
- Erradioterapia, ambulatorioan eta ospitalean. **(1)**.

Oxigeno-terapia, Haize-terapia eta Aerosol-terapia (1)

Ambulatorioan eta etxean. Medikazioa Aseguratuaren kontura izango da.

Ebakuntzadun Erradiologia Baskularra (1)

Transfusioak

Odola eta plasma, Kirofano barruan eta kanpo **(1)**.

Minaren Unitatea (1)

Kanpoan geratzen dira radio-frekuentziadun edota sistema ezargarridun tratamenduak eta halaber mota guztietako materialak eta sorgailuak ere.

V. Beste Metodo Diagnostiko batzuk

Beste diagnostiko-baliabide batzuk

Elektrokardiogramak, Entzefalogramak, Holter, Esfortzu proba, Eko-intrakabitariora, Ekokardiogramak, Doppler eta Kardiotokografia haurdunaldian eta haurgintza-baitan **(2)**.

Goi Teknologiako Baliabide diagnostikoak

- Arteriografia Digitala (DIVAS) **(1)**.
- Kapsula endoskopikoa **(1)**.
- Koronariografia **(1)**.

- Estres Ekoa **(1)**.
- Doppler Ekoa **(1)**.
- Ekokardiografia transesofagikoa (E.T.E.) **(1)**.
- Endoskopia **(1)**.
- Isotopo Erradioaktiboak, Gammagrafia barne (Dat-Scam ez dago barne) **(1)**.
- Mamotomia (MIBB) **(1)**.
- Mikrobiopsia **(1)**.
- P.E.T. onkologikoa **(3)**.
- Gaueko Polisomnografia **(1)**.
- Haurdunaldian malformazioak detektatzeko probak **(2)**: amniozentesia edo biopsia koriala.
- Erresonantzia Magnetikoa **(1)**. Kontraste baliabidea Aseguratzaileren kargura izango da.
- Scanner **(1)**. Kontraste baliabidea Aseguratzaileren kargura izango da.

VI. Beste Zerbitzu batzuk

Anbulantzia

Aseguratzaileren lurralde eremuaren barruan, egoera fisikoak eskatzen dien eta euren egoitzatik hitzartutako Zentroetara, ospitalean sartzeko edo larrialdiko asistentzia hartzeko, joan behar duten gaixoentzat. Kasu guztietan beharko da Aseguratzailen hitzartutako Medikuek edo Larrialdi Zentroak idatziz egindako eskaera edo agindua. Etxera itzultzea Aseguratuaren kontura izango da, ezgaitasun zertzelada berdinak irautearen kasuan izan ezik.

Garraioa, kasu guztietan, lurrez egingo da eta osasun ibilgailuan ez da egingo medikuaren ustez erabat beharrezkoa denean baino. Zerbitzu honen estalduran kasu batean ere ez da sartzen ez Fakultatibo baten ohiko kontsultara joatea, ez Dialisi, Errehabilitazioa, Erradioterapia, Elektroterapia eta abarreko tratamenduak hartzera joatea ere.

Habia

Jaioberriarentzat, erditzea dela-eta ospitalizazio obstetrikokoan zehar **(2)**.

Larrialdietako Zerbitzu Iraunkorra

Aseguratzailen Koadro Medikoa adierazitako Zentroetan. Gaixoaren egoerak eskatzen duenean asistentzia etxean emango da.

Larrialdiak noizean behingo edoaldi baterako lekualdaketetan

Aseguratzaileren lurralde eremutik kanpo eta lurralde nazionalaren barruan, Aseguratzailen edota bere Entitate Lankideek hitzartutako Zentroetan, Aseguratzaileren Koadro Medikoa biltzen den arabera.

Larrialdiak atzerrian bidaiatzen ari den bitartean

Horretarako Aseguratuak estaldura ziurtagiria eskuratu beharko du, bertan zehazten direlako terminoak eta baldintzak.

Podologia

Gehienez ere kiropodiako 6 saio urtean.

Erditzeko prestakuntza (2)

Bigarren Iritzi Medikoa

Aseguratzailerak Baldintza Partikularretan jarri ahal izango du Aseguratu bakoitzeko urteko kopuru handiena, urtero eguneratu ahal izango dena, "POLIZAREN BALDINTZA EKONOMIKOAK URTERO EGUNERATZEA" azaltzen duen 10. Artikuluaren arabera.

KANPOAN GELDITZEN DIRA POLIZAREN BESTE MODALITATE BATZUETAKO ESTALDURA BEREZIA ERATZEN DUTEN ZERBITZUAK, TRATAMENDUAK EDO TEKNIKAK.

VII. Gabezia Aldi Orokorrak

(1) = 6 hilabete (2) = 10 hilabete (3) = 12 hilabete (4) = 18 hilabete

ORO Modalitatea

Ondoren berariaz aipatzen diren prestazioak hartzen ditu barnean:

I. Lehen Mailako Atentzioa

Medikuntza Orokorra edo Familiakoa

Kontsultan eta etxean.

Pediatría

Kontsultan 14 urtera arte.

A.T.S. / D.U.E. (Erizaina)

Kontsultan eta etxean.

II. Espezialitateak

Alergologia

Analisi Klinikokoak

Anatomia Patologikoa

Anestesia eta Erreanimazioa

Digestio Aparatua

Kardiologia

Kirurgia Kardiobaskularra

Kirurgia Orokorra eta Digestio Aparatuarena

Kirurgia Maxilo-Faziala

Kanpo geratzen dira hezur txertaketak eta txertaketa osteointegratuak, protesiak eta kirurgia periodontalak, eta orobat eskatutako eta helburu horietara destinaturiko azterketa diagnostikoak eta gainerako teknikak.

Kirurgia Pediatrikoa

Kirurgia Plastiko Konpontzailea

Estetiko hutsa kanpo geratzen da.

Kirurgia Torazikoa

Dermatologia eta Benereologia

Irudi bidezko Diagnostikoa

Ohiko Teknikak estaltzen ditu, hala nola Erradiologia Orokorra, Ekografiak, Mamografia Konbentzionalak eta Hezur Dentsitometria **(1)**. Kontraste baliabideak Aseguratzaileren kontura izango dira.

Endokrinologia eta Nutrizioa

Ginekologia eta Obstetria

Barnean hartzen ditu DIUren ezarpena **(1)** (Aseguratuaren kontura izango da dispositiboaren kostua), ernalezintasunaren eta antzutasunaren azterketa eta diagnostikoa **(1)** eta Tronpen lotura **(1)**.

Hematologia eta Hemoterapia

Barne Medikuntza

Mikrobiologia eta Parasitologia

Nefrologia

Hemodialisia barnean hartzen du **(3)**.

Neumologia

Asma eta arnas alergia. Ez dago sartuta loaldiko arnasketa nahasketen tratamendua, CPAP eta BIPAP.

Neurokirurgia

Sartuta daude erradiokirurgia eta kirurgia estereotaxikoa, Parkinsonaren kirurgia eta epilepsiaren kirurgia **(4)**.

Neurofisiologia Klinikoa

Kanpo geratzen da buru kartografia (Mapping).

Neurologia

Odontologia

Hurrengo hauek baino ez daude estaliak, hots; sendabide estomatologikoak eta erauzketak, aho garbiketak, horietarako behar diren erradiografiak eta tratamendu periodontala: arraspatzeak eta berdintze erradikularrak, urtean lau koadrantera arte **(1)**.

Oftalmologia

Betzuringoaren transplantea barne **(4)** (transplantatu beharreko betzuringoa Aseguratuaren kontura izango da). Kanpoan geratzen dira hurrengo hauen guztien zuzenketa, hots, Miopiarena,

Astigmatismoarena, Hipermetropiarena eta errefrakzioaren gainerako aldaketena, eta halaber Terapia Fotodinamikoa ere.

Onkologia

Otorrinolaringologia

Psikiatria

Psikoterapia, gehienez ere 20 saio urtean. **(3)** Ez daude sartuta psikoanalisi, terapia psikoanalitikoak, eta test psikologikoak. Halaber, ez daude sartuta hipnosia eta narkolepsia.

Erreumatologia

Traumatologia eta Kirurgia Ortopedikoa

Urologia

Barnean hartzen du basektomia **(1)**.

III. Ospitalizazioak

Ospitalizazio Medikoa (ebakuntza kirurgikorik gabea)

Estaldura xede den barnerapenaren iraupena asistentziaren ardura daukan Medikuek erabakiko du ospitalizazioaren premia teknikoak dagoen bitartean **(1)**.

Ospitalizazio Pediatrikoa (ebakuntza kirurgikorik barik)

Estaldura xede den barnerapenaren iraupena asistentziaren ardura daukan Medikuek erabakiko du ospitalizazioaren premia teknikoak dagoen bitartean **(1)**. Era berean, barnean hartzen du neonatologia unitatean gehien 30 eguneko ospitalizazioa ere **(2)**.

Ospitalizazio Obstetrikoa (Haugintza)

Tokologoak eta emaginak zainduta, eta barruan hartzen du anestesia epidurala **(2)**. Aseguratzaileren kontura izango da era berean RHren kontrako txertoa ere **(2)**, haurra izan berri Kliniketan dagoen bitartean Aseguratuari emango zaiona.

Ospitalizazio Psikiatrikoa

Estaldura xede den barnerapenaren iraupena urtean 30 egunera artekoa izango da, jarraian zein txandaka egina **(1)**. Bere izaeratik ez da sartzen laguntzailearen oherik.

Kanpo geratzen dira Toxikomaniek edo drogamenpekotasunek eragindako ospitalizazioak, eta halaber nortasunaren nahasteek eragindakoak ere.

Ospitalizazio Kirurgikoa

Estaldura xede den barnerapenaren iraupena asistentziaren ardura duen Medikuek erabakiko du Ospitalizazioaren premia teknikoak irauten duen bitartean **(1)**.

Ospitalizazioa Unitate Koronarioan (ebakuntza kirurgikorik barik)

Estaldura xede den barnerapenaren iraupena asistentziaren ardura duen Medikuek erabakiko du Ospitalizazioaren premia teknikoak irauten duen bitartean **(1)**. Bere izaeratik ez da sartzen laguntzailearen oherik.

Ospitalizazioa Zainketa Intentsiboetako Unitatean (ebakuntza kirurgikorik barik)

Estaldura xede den barnerapenaren iraupena asistentziaren ardura duen Medikuek erabakiko du Ospitalizazioaren premia teknikoak irauten duen bitartean **(1)**. Bere izaeragatik ez da sartzen laguntzailearen oherik.

Ospitalizazioa, kasu guztietan, Hitzarturiko Zentroetan izango da, ohe bakarreko gelan eta barnean hartzen ditu janaria, sendakuntzak eta materiala, kirofano eskubideak, anestesia eta medikazioa eta halaber laguntzailearen ohea ere **(1)**, beren beregi baztertutako kasuetan izan ezik.

Etxeko Ospitalizazioa

Sarrera kirurgikoaren ostekoa, Klinikako Ospitalizazioaren ordezkua denean eta gaixoaren ardura duen profesionalak agindua denean **(1)**.

IV. Beste Metodo Terapeutiko Batzuk

Elektroterapia (1)

Uhin Laburra, Izpi Infragorriak, Izpi Ultramoreak, etab.

Fisioterapia eta Errehabilitazioa (3)

Kanpo geratzen dira mantenu eta zereginetako terapiak eta era berean gaixotasun kroniko, sortzetiko, neurologiko eta endekapenezkoak.

Barruan sartzen da hurrengo hauen erreabilitazioa:

- Aparatu lokomotorea.
- Drainatze linfatikoa linfadenektomiaren ostean.
- Arnas fisioterapia, toraxeko eta bihotzeko kirurgiarekin lotua; prozesuko gehien 20 ekitaldi.
- Errehabilitazio kardiakoa.

Hemodinamika Baskularra (1)

Litotrizia (3)

Giltzurrunetakoa eta muskulu-eskeletokoa baino ez.

Logofoniatria (3)

Estalduraren barruko tratamenduetan urteko 90 saio sartzen dira. Kanpoan geratzen dira mintzairaren nahasteen prebentzioa, azterketa eta zuzenketa guztiak, jatorria edozein dela ere. Halaber, kanpoan geratzen dira ahotsaren erasanaren gaineko terapia eta mekanismoa sortzetiko patologietan, patologia psikikoetan, neurologikoetan eta endekapenezko patologietan, lehen nahiz bigarren mailako jatorrietan.

ABBI Mikrokirurgia (1)

Nutrizio Parenterala

Ospitalean.

Onkologia

- Kimioterapia, ambulatorioan eta ospitalean. Barnean hartzen du agindutako tumoreen kontrako medikazioa, merkatu nazionalean merkaturaturik baldin badago eta Osasun Asistentziako Zuzendaritza Nagusiak baimendurik badago **(1)**.
- Erradioterapia, ambulatorioan eta ospitalean **(1)**.

Oxigeno-terapia, Haize-terapia eta Aerosol-terapia (1)

Anbulatorioan eta etxean. Medikazioa Aseguratuaren kontura izango da.

Ebakuntzadun Erradiologia Baskularra (1)

Psikoterapia

Gehienez ere 20 saio urtean. IMQren psikiatra batek agindu ondoren. Ez daude sartuta psikoanalisi, terapia psikoanalitiko, eta test psikologikoak. Halaber, ez daude sartuta hipnosia eta narkolepsia.

Hezur muinaren edo Stem Cell transplantea (4)

Transfusioak

Odola eta plasma, Kirofano barruan eta kanpo (1).

Minaren Unitatea (1)

Barruan sartzen dira material ezargarriak eta kanpoan geratzen dira mota guztietako sorgailuak.

V. Beste Metodo Diagnostiko batzuk

Beste diagnostiko-baliabide batzuk

Elektrokardiogramak, Entzefalogramak, Holter, Esfortzu proba, Eko-intrakabitariora, Ekokardiogramak, Doppler eta Kardiotokografia haurdunaldian eta haurgintza-baitan (2).

Goi Teknologiako Baliabide diagnostikoak

- Arteriografia Digitala (DIVAS) (1)
- Kapsula endoskopikoa (1).
- Koronariografia (1)
- Estres Ekoa (1)
- Doppler Ekoa (1)
- Ekokardiografia transesofagikoa (E.T.E.) (1)
- Endoskopia (1)
- Isotopo Erradioaktiboak, Gammagrafia barne (Dat-Scam ez dago barne) (1).
- Mamotomia (MIBB) (1).
- Mikrobiopsia (1).
- P.E.T. onkologikoa (3).
- Gaueko Polisomnografia (1).
- Haurdunaldian malformazioak detektatzeko probak (2): amniozentesia edo biopsia koriala.
- Erresonantzia Magnetikoa (1). Kontraste baliabidea Aseguratzailaren kargura izango da.
- Scanner (1). Kontraste baliabidea Aseguratzailaren kargura izango da.

VI. Beste Zerbitzu Batzuk

Anbulantzia

Aseguratzailaren lurralde eremuaren barruan, egoera fisikoak eskatzen dien eta euren egoitzatik

hitzartutako Zentroetara, ospitalean sartzeko edo larrialdiko asistentzia hartzeko, joan behar duten gaixoentzat. Kasu guztietan beharko da Aseguratzailerak hitzartutako Medikuek edo Larrialdi Zentroak idatziz egindako eskaera edo agindua. Etxera itzultzea Aseguratuaren kontura izango da, ezgaitasun zertzelada berdinak irautearen kasuan izan ezik.

Garraioa, kasu guztietan, lurrez egingo da eta osasun ibilgailuan ez da egingo medikuaren ustez erabat beharrezkoa denean baino. Kasu batean ere ez da sartzen zerbitzu honen estalduran Fakultatibo baten ohiko kontsultara joatea, edo Dialisia, Errehabilitazioa, Erradioterapia, Elektroterapia eta abarreko tratamenduak hartzeko.

Habia (2)

Jaioberriarentzat, erditzea dela-eta ospitalizazio obstetrikotan zehar.

Podologia

Gehienez ere kiroprodiako 6 saio urtean.

Haurgintzarako prestaketa (2)

Protesi finkoak (4)

Aseguratzaileraren kontura bakarrik izango dira zehazten diren protesi finkoak eta barnekoak:

- Traumatologia: Barneko protesi traumatologikoak eta barneko osteosintesi materiala.
- Aparatu Kardiobaskularra: Balbula kardiakoak, stent, bypass baskularra, endoprotesi baskularrak eta aldi bateko eta behin betiko taupagailua.
- Digestio aparatua: Endoprotesia.
- Ginekologia: Sorrera neoplasikoko mastektomia osteko ugatz protesia.
- Neurokirurgia: Deribazio balbulak.
- Oftalmologia: Begi-barruko lenteak (katarata ebakuntzaren ostean baino ez).
- ORL: Tinpanoko protesia.

Beste mota bateko edozein protesi, pieza anatomiko edo ortopediko Aseguratuaren kontura izango dira.

Laguntza bidezko ugalketa (4)

Bikotearen antzutasunaren edo ugalkortasun ezaren tratamendurako. Zerbitzu hau erabiltzeko baldintza hauek bete beharko dira: bikoteko bi kideak poliza honetako aseguratuak izatea eta kasuan kasuko gabezia aldiaren menpe ez egotea, ez bata ez besteak kirurgia antikonzeptiboko ebakuntzarik eginda ez izatea (basektomia edo tronpen lotura) eta emakumea 42 urtetik beherakoa izatea.

Estaldura hau da, baldintza hauetan:

- Intseminazio artifiziala, bikotekidearen edo emallearen haziarena (3 saialdi).
- In vitro ernalketa, emandako obuluekin nahiz gabe (2 saialdi). Barne hartzen du ICSI delakoa (haziaren mikroinjekzioa), beharrezkoa bada.

Laguntza bidezko ugalketarako tekniken aplikazioa lege indardunekin bat egingen da.

Bigarren Iritzi Medikoa

Larrialdietako Zerbitzu Iraunkorra

Aseguratzailerak Koadro Medikoa adierazitako Zentroetan. Gaixoaren egoerak eskatzen duenean asistentzia etxean emango da.

Larrialdiak noizean behingo edo aldi baterako lekualdaketetan

Aseguratzaileraren lurralde eremutik kanpo eta lurralde nazionalaren barruan, Aseguratzailerak edota bere Entitate Lankideek hitzartutako Zentroetan, Aseguratzaileraren Koadro Medikoa biltzen den arabera.

Larrialdiak atzerrian bidaiatzen ari den bitartean

Horretarako Aseguratuak estaldura ziurtagiria eskuratu beharko du, bertan zehazten direlako terminoak eta baldintzak.

Aseguratzailerak Baldintza Partikularretan jarri ahal izango du Aseguratu bakoitzeko urteko kopuru handiena, urtero eguneratu ahal izango dena, "POLIZAREN BALDINTZA EKONOMIKOAK URTERO EGUNERATZEA" azaltzen duen 10. Artikuluaren arabera.

VII. Gabezia Aldi Orokorrak

(1) = 6 Hilabete (2) = 10 Hilabete (3) = 12 Hilabete (4) = 18 Hilabete

6. Artikulua

Kanpoan geratzen diren arriskuak

Aseguruaren estalduratik kanpo geratzen dira:

- 1) Lan istripuetatik eta lanbide gaixotasunetatik eratorritako osasun asistentzia, Aseguratu estaltzen duen aseguru berezi bat edo zibilez erantzule den hirugarren bat dagoenean.
- 2) Motorezko Ibilgailuen Derrigorrezko Aseguruak babesturiko istripuen tratamenduak eskatzen duen osasun asistentzia.
- 3) Osasunaren Sistema Nazionalean integraturiko Zentroetan emandako osasun asistentziatik eratorritako gastuak, izan ezik Zentro jakin batzuetan berariaz hitzartutako asistentziatik eratorritakoak.
- 4) Hurrengo hauen ondorio gisa gertatzen direnak, hots: gerra zibilak, nazioartekoak edo kolonialak, inbasioak, matxinadak, erreboltak, mutinak, altxamenduak, errepresioak, terrorismoaren edo maniobra militarren ekintzak, nahiz eta bake garaian gertatu; erradiazioarekin edo kutsadura erradioaktiboarekin zerikusi zuzena edo zeharkakoa daukatenak, eta halaber lurrikara, uholde, sumendi erupzio eta gainontzeko fenomeno sismiko edo meteorologikoak bezalako egoeretatik datozenak eta ofizialki aitorturiko izurriek sorturikoak.
- 5) Aldez aurretik edota sortzetik dauden mota guztietako gaixotasun, akats edo deformazioetatik eratorritako edo Aseguratu bakoitza Polizan sartutako dataren aurretik gertatutako istripu edo

gaixotasunen ondorio den osasun asistentzia, eta halaber horietatik erator daitezkeena ere, Aseguruaren Hartzailak edo Aseguratuak ezagutu eta aitortu ez dituenean.

Aseguruaren Hartzaila, bere izenean eta Aseguratuen izenean, kasua denean egin den alde aurreko azterketa medikotik at, beharturik dago Aseguru Eskuera sinatzeko nean deklaratzera Aseguruetariko baten batek jasaten duenentz edo jasan duenentz motaren bateko lesiorik edo gaixotasunik, batez ere izaera errepikagarria dutenak eta sortzetikoak direnak edo azterketak, proba diagnostikoak eta edozein motako tratamenduak behar dituztenak edo behar izan dituztenak; edo harpidetzaren nean jasaten duenentz patologiaren baten hasieratzat har daitezkeen sintomak edo seinaleak.

Aseguratzaileak beretzat gordetzen du eskatzailearen edo eskatzaileen eransketa onartu edo ezetz esateko eskubidea eta, onartzeko kasuan, Polizako Baldintza Partikularretan dagokion kanporaketa klausula jartzekoa alde aurretik edo sortzetik dituen aipatu gaixotasun, lesio, akats edo deformazioentzako zerbitzuen estaldurari dagokionez.

- 6) Tokikomanietatik edo drogamenpekotasunetatik eratorriko eta horiei loturiko osasun asistentzia, psikiatrikoa barne, eta nortasunaren nahastetik eta autolesioetatik, horditasunetik edo liskarretatik (norbere bidezko defentsa salbu) edo buru-hilketa saiaketatik eratorrikoa.
- 7) H.I.E.S.ren eta Giza Inmuno-eskaziaren Birusak (GB/VH) eragindako gaixotasunen osasun asistentzia.
- 8) Aseguratuak zuzenean, titulu partikularrez, hau da, Aseguratu izaeratik aparte eta Asegurua aipatu gabe, eskatuta Profesionalek edo Osasun establezimenduek, Aseguratzailearen Koadro Medikoan sartuta daudenak izan arren ere, zerbitzuak eskatzea eragin zuen ondoezetik edo eritasunetik eratorritako jarduketa guztiei emandako zerbitzuak.
- 9) Ospitalizazio araubidetik kanpoko medikamentu eta produktu kimiko/farmazeutikoak (Hitzartutako Zentroetan emandako kimioterapia izan ezik). Kanpo geratzen dira hala araubide ambulatorioan nola Ospitalean hartutako mota guztietako txertoak (RHren kontrako txertoa salbu) eta Hemofiliaren tratamendua.
- 10) Sexu bataren eta bestearen ernalezintasuna eta antzutasuna konpontzera bideraturiko tratamendua (kirurgia barne), "in vitro" ernalketa, intseminazio artifiziala, etab. (espresuki sartutako tratamenduak izan ezik, kasuan kasuko modalitateko zerbitzuetan ageri direnak) eta haurdunaldiaren borondatezko etendura, eta halaber aipatu tratamenduekin zerikusi duten proba diagnostikoak ere.
- 11) Kanpo geratzen da inpotenziaren azterketa, diagnostikoa eta tratamendua (Kirurgia barne), eta halaber sexu aldaketaren kirurgia ere.
- 12) Organo, ehun, zelula edo zelula osagaien transplanteak, izan ezik muinaren transplante autologoa eta betzuringoaren transplantea, estaldura kontuan hartzen duen Modalitatean. Bi kasu hauetan, hala ere, kanpo geratzen da transplantatu beharreko organoa eskuratzea eta eskuraketa horrekin zerikusia duten kudeaketak.
- 13) Izaera estetiko edo kosmetiko hutsa dutenen diagnostikoa, ebakuntzak, infiltrazioak eta tratamenduak, eta halaber beste edozein jarduketa ere. Era berean, kanpo geratzen dira helburu estetikoak duten ile tratamenduak.

- 14) Edozein klase eta izaerako protesiak, kanpoko ezarpenak, osteosintesi materiala, material biologikoak edo sintetikoak, eta orobat pieza anatomikoak eta ortopedikoak, Aseguratuaren kontura izango direlarik, dagokion Modalitateko zerbitzuen deskripzioan agertzen ez badira.
- 15) Bidaia eta lekualdaketingatiko gastuak, izan ezik anbulantziarenak zerbitzuen deskripzioan aipatzen diren terminoetan. Era berean, kanpo geratzen dira Aseguratua Zentrora garraiatzeak dituen gastuak, eta alderantziz, errehabilitazio, fisioterapia, dialisi, erradioterapia etab. kasuetan.
- 16) Miopia, Astigmatismoa eta Hipermetropia zuzentzea, eta orobat errefrakzioaren beste edozein aldaketa ere, edozein baliabide edo teknika mota erabilita.
- 17) Kirolaren praktika profesionaletik edo kirol txapelketetan oro har amateur gisa partehartzetik eratorriko osasun asistentzia, eta bereziki hurrengo jardueretatik eratorrikoa, hots, aire jarduerak, boxeoa, arte martzialak, eskalada, espeleologia, urpekaritza, motorezko ibilgailuen karrerak, errugbia, zezenketa eta abere hezikaitzen entzierroa.
- 18) Medikuaren edo Ospitaleko asistentzia gizarte mota arrazoiengatik, esaterako familia eragozpen edo zailtasunetik, ondorio txarretatik edo egoera atzeraezinetatik eratorria.
- 19) Hoteleko zerbitzuak, adibidez telefonoa, telebista, hautazko edo laguntzailearen janariak eta erizainaren zerbitzu pribatua.
- 20) Gaixotasunen prebentzioari, tratamenduari edo osaketari laguntza eraginkorra ematen dietela behar bezala frogaturik ez duten prozedurak, eta halaber hautabidezko medizina ere, esaterako naturopatia, hidroterapia, magnetoterapia, akupuntura, kiropaktika, digitopuntura, homeopatia, mesoterapia, presoterapia, ozonoterapia, etab., nahiz eta Aseguratzailaren Koadro Medikoko Fakultatiboek agindutakoak izan.
- 21) Kanpo beren beregi geratzen dira praktika orokorrekoak ez diren eta Osasunaren Sistema Nazionalean onarturik ez dauden prozedura diagnostiko eta terapeutiko guztiak, nahiz eta Aseguratzailaren Koadro Medikoko Fakultatiboek agindutakoak izan, Baldintza Orokorrean beren beregi sarturik egon eta dagozkien egokitzapenak Sarietan eginda ez dauden bitartean.
- 22) Bainuetxeetako eta antzeko Zentroetako egonaldi gastuak eta atsedeen edo argaltze sendaketak, nahiz eta Aseguratzailaren Koadro Medikoko Fakultatiboek agindutakoak izan.
- 23) Osaketa helbururik gabeko azterketa medikoak (miaketak) eta halaber gida eta ehiza baimenak, aitatasun probak, etab.
- 24) Diagnostiko genetiko, molekular eta beste motaren bateko edozein metodo, eta halaber aldaketa genetikoekin zerikusi duten gaixotasunak Aseguratuarengan edo bere ondorengoengan egon daitezkeenentz jakiteko aurretiko jarrera edo diagnostikoa ezagutzera bideraturiko mapa genetikoak, izan ezik jaioaurreko diagnostikoa, hori zehazten den Modalitatean.
- 25) Terapia genikoa, molekularra eta inmunoterapia, eta halaber gurasoen zelulekin egindako tratamendua ere.

26) Jaioberriaren asistentzia medikoa, izan ezik jaioberria Aseguratzaillearen arauen arabera aseguratutik dagoenean.

27) Parkinson eta epilepsia gaixotasunen tratamendurako edozein teknika terapeutiko.

28) Diagnostiko teknikatik, tratamenduetatik edota baliabideetatik eratorritako gastuak, dagokion Modalitatearen arabera Polizaren estalduran sarturik ez dagoen prestaziotik eratorriak edo ondorio badira.

7. Artikulua

Gabezia Aldiak

Aseguratzailleak Polizaren indarrez beregain hartzen dituen prestazio guztiak Kontratua indarrean hasten den unetik aurrera emango ditu, izan ezik Baldintza Orokorretan edota Partikularretan Gabezia Aldiak seinaturik dituztenak, eta halaber edozein arrazoi edo baldintzagatik ebakuntza kirurgikoak edo ospitalizazioak ere, hauek sei hilabeteko gabezia aldia izango baitute.

Hil edo biziko larrialdi ohartezinen kasuan, Gabezia aldiak baliogabetu egingo dira ospitalizazio eskatzen duten zerbitzuetarako, Fakultatiboaren informean oinarrituta.

Kasu partikularretan ere jarri ahal izango dira beste Gabezia Aldi batzuk eta, kasua denean, bazterketak ere, Osasunari buruzko Galdesortaren analisiaren edo alde zuzeneko azterketa medikoaren ondorioz.

Gabezia aldiak edota Bazterketak aseguru bakoitzari banan-banan aplikatuko zaizkio.

8. Artikulua

Estaldua xede diren zerbitzuak bereganatzea

a) Asistentzia burutuko da Aseguratzaillearen Koadro Medikoa une bakoitzean agertzen diren Osasun Profesionalen eta Zentroen artean Aseguratuak libreki hautatutako Fakultatiboaren edota Zentroaren bidez, eta horiek zuzenean prestatuko dizkiote zerbitzuak autonomia osoz eta euren bakarreko erantzukizun profesionalaren pean.

b) Aseguratuaren identifikazioa identifikazio pertsonalerako behar den dokumentua eta Aseguratuaren txartela Fakultatiboaren edo Zentroaren aurrean aurkeztuta egingo da, eta halaber Aseguratzailleak une bakoitzean ezarrita dituen zerbitzuaren kreditazio dokumentuak ere aurkeztuta.

Aseguratzailleak alde zuzenetik emango die Aseguratuari sistemen eta euskarrien behin behineko aldakuntzen xehetasunaren berri, asistentzia eskuratzeko kasu guztietan eragingarri izango direnak hurrengo atalean ezartzen diren arauen arabera.

c) Aseguratuak libreki hautatu ahal izango dute Medikua Orokorra edo Familiakoa, Aseguratzaillearen Koadro Medikoa agertzen direnen artean. Hautaketa urtekoa izango da, kausa justifikatua dagoen kasuetan izan ezik, eta Aseguratzailleari emango beharko zaio horren berri eta hautatutako medikuak onartu beharko du.

Asistentziak, normalean eta lehen instantzian, Mediku Orokorraren edo Familiakoaren atentzioa eskatzen du. Mediku Orokorraren edo Familiakoaren asistentziak bere baitan hartzen du etxera joatea, gaixoaren egoerak ezinezko egiten duenean Fakultatiboaren sendategira joatea.

Larrialdi kasuetan, eta halaber bisita-ordutegi normaletik kanpokoetan ere (8:00etatik 20:00etara asteleheneretik ostiralera arte), estaldurak barruan hartzen du Etengabeko Larrialdi Zentroetako atentzioa edo, kasua denean, Aseguratzailleak hitzartuta daukan Etxeko Zerbitzuaren eskaera.

Mediku Orokorraren edo Familiakoaren ustez asistentziak Espezialitate baten orientazioa eskatzen duenean, Aseguratua joango da Aseguratzaillearen Koadro Medikokoak direnen artean libreki hautaturiko espezialistarengana.

Mediku Espezialistaren asistentziari bide eman zion gaixotasunak dirauen bitartean, gaixoak ezingo du beste zerbitzurik erabili hasieran hautatu zituenak baino, izan ezik Mediku Orokorrak edo Familiakoak oniritzitako kausa justifikatua dagoenean eta honek, kasu horretan, Aseguratzaillearen Koadro Medikokoa den beste Espezialista batengana bidali ahal izango du.

Helburu diagnostikodun proba edo araketa osagarriek Mediku Orokor edo Familiakoaren, edo asistentzia bere kargu daukan Espezialistaren eskabidea behar dute.

- d) Ospitalizazio Mediko edo Kirurgikoaren, Kirurgia Anbulatorioaren eta diagnostiko teknika berezien estaldurak Aseguratzaillearen Koadro Medikoko Medikuen baten eskaera behar du. Aseguratuak, gainera, alde zurretik estalduraren konfirmazioa eskuratu beharko du Aseguratzaillearen Bulegoetan edo une bakoitzean ezarrita dagoen sistemaren bidez.

Hil edo biziko larrialdi kasuetan, nahikoa izango da Medikuen preskripzioa, baina Aseguratuak gertaeraren berri eman beharko dio Aseguratzailleari ahal denik eta arinen -normalean 72 orduko epean- dagokion baimena edo ukoa Polizaren estalduran oinarrituta eskuratzeko xedeaz.

A.T.S./D.U.E.ren (Erizainaren) eta Anbulantziaren zerbitzuak Aseguratzailleak zentralizaturik ipinita daukan Atentzio eta Larrialdi Zerbitzuaren telefonoan eskatu beharko dira.

- e) Aseguratzailleak ez ditu bere gain hartuko bereak ez diren fakultatiboek edo Zentroek emandako asistentziak eragindako gastuak, asistentzia agintzen duen Medikua dena delakoa izan. Ez ditu bere gain hartuko ezta ezein motako ordainsariak, araketak edo beste edozein zerbitzu mota ere, hitzartutako fakultatiboek edo Zentroek egindakoak izan arren gaixoen tratamenduan Aseguratzaillearen Koadro Medikoko Medikuen bakarreko ekimenak agindutakoak izan ez badira.

Hitzartu gabeko Fakultatiboengana edo Zentroetara joateko Aseguratzaillearen Koadroko Medikuen batek egindako azalpenak ez du lotzen Aseguratzaillea.

Polizak estalduriko ebakuntza, miaketa edo tratamendu bat ezin badu burutu Aseguratzaillearen Koadroko Medikuen, Klinika edo Zentro batek ere, suposamendu horretan asistentziaren estaldurak beharko ditu Aseguratuari asistentzia ematen dagoen Fakultatiboaren informea eta Aseguratzailleak alde zurretik eta berriaz emandako baimena, eta honek aipatu autu horri buruzko informazioa Koadroko beste Fakultatibo batzuei eskatu eta berme ezagundun alternatiba seinالاتu ahal izango du.

Era berean, beharko ditu Koadroko Fakultatibo baten azalpena eta Aseguratzaillearen alde zuzeneko eta berriazko baimena, eta halaber Aseguratzailleak hitzartutako Asistentzia Nazionalaren Sareko Espezialista batekin elkarren arteko kontsulta burutzea. Baimen hori bera beharko da aseguratuaren jarduketaren esparru geografikotik kanpo dagoen erietxe edo osasun zentro batean asistentzia jasotzeko.

- f) Estaldura xede den asistentziaren beste arau batzuk:
- Aseguru honen ondorioetarako, ezbeharraren berri eman dela uste izango da Aseguratuak zerbitzua emateko eskatzen duenean.
 - Etxeko zerbitzuen estaldurari dagokionez, bidezko den kasuetan, Polizan agertzen dena baino ez da egingo, salbuespena bakarria izango delarik Aseguratzaillearen lurralde joka eremutik kanpo gertatzen diren larrialdi zerbitzuak. Egoitza aldaketa guztiak idatziz jakinarazi beharko dira eta Aseguratzailleak bere burua behartzen du dagokion Polizaren Osagarria igortzera.

9. Artikulua

Sariaren Ordainketa

Aseguruaren Hartzailea Saria ordaintzera beharturik dago.

- a) Sariaren izaera banaezina eta urtekoa
Saria bakarria da, urtekoa eta alde zuzenetik ordaintzekoa, lehenengo joka epealdiaren hasieran oso-osorik sortzen delarik; edo, egongo balira, luzapen bakoitzaren hasieran.
- Hala ere, itundu ahal izango da bere ordainketa zatitua Baldintza Partikularretan eta Hartzailearen mesedetan, kalterik egin barik Aseguratzailleak osorik kobartzeko daukan eskubideari. Zatiketa hori ordainketa errazteko da, baina urteko Sariaren batasunari eta banaezintasunari ez dio kalterik inola ere egiten.
- b) Lehenengo Saria
Lehenengo Saria Kontratua sinatzen den unean sortuko da eta, ordutik aurrera, osorik eskatu ahal izango da. Hartzailearen erruz ordainduko ez balitz, Aseguratzailleak Kontratua suntsiarazteko eskubidea edo bide betearazlean Saria ordaintzeko eskatzekoa Polizan oinarrituta. Dena den, Saria ordainduko ez balitz ezbeharrak gertatu baino lehenago, Aseguratzaillea bere betebeharrak libre geratuko da, kontrako ituna dagoenean izan ezik.
- c) Bigarren eta ondorengo Sariak
Bigarren edo ondorengo Sariak ez ordaintzeko kasuan, estaldura etenda geratuko da ordaindu gabeko lehenengo erreziboaren mugaegunetik hilabetera (edo errezibo bakarretik hilabetera, ordainketaren zatiketa itundu ez den kasuan) eta Aseguratzailleak aipatu mugaegunetik sei hilabeteren barruan ordaintzeko eskatzen ez badu, Kontratua iraungita dela ulertuko da. Kontratua konponduko edo iraungiko ez balitz aurreko baldintzen arabera, estaldurak efektua izango du berriro Hartzaileak sor dituen erreziboak ordaindu eta hurrengo hogeita lau orduen barruan.
- d) Erreziboen librantza eta helbideratzea
Aseguratzaillea bakarrik dago beharturik lege zuzenaren bidez baimenduriko bere ordezkariak libratutako erreziboen indarrez. Aseguru honen Sari erreziboak berak igorriko ditu.

Erreziboak, gainera, legez aplikatu beharreko gainkargak, tasak eta zergak ere izango ditu.

Baldintza Partikularretan itundu ahal izango da Sari erreziboak Bankuetan, Aurrezki Kutxetan edo Kreditu Kooperatibetan irekitako kontuen bidez kobratzea.

Sari erreziboen helbideratzea ituntzen bada, aipaturikoak gehitzeko asmoz, hurrengo arauak ezartzen dira:

1. Hartzaileak bidezko helbideratzen agindua ematen dion Bankuari edo Aurrezki Kutxari igorritako gutuna edo dokumentua emango dio Aseguratzailari.
2. Ulertuko da errezibo bakoitza bere mugaegunean dagoela ordainduta, izan ezik kobratzen saiatuta Hartzaileak erraztutako kontuan fondo nahikorik ez dagoenean. Kasu horretan, Aseguratzailak Hartzaileari jakinaraziko dio erreziboa bere eskura daukala eta honek Aseguratzailaren egoitzan ordaindu beharko du hamar eguneko epean. Epe hori iraganda, Sari erreziboak ez ordaintzearen suposamendurako aurreikusitako ondorioak gertatuko dira.
3. Poliza indarrean dagoen bitartean, Hartzaileak aldatu ahal izango du bere erreziboak helbideratzen dituen kontua edo finantza entitatea, aldaketa horren berri alde aurretik emanda 1. atalean aurreikusitako eran.

10. Artikulua

Polizaren baldintza ekonomikoak urtero eguneratzea

Aseguratu bakoitzak eskuraturiko urteko saria sexuaren eta adinaren arabera ezarriko da, Aseguratzailak berrikuntza data bakoitzean indarrean dauzkan tarifak aplikatuta.

Aseguruaren Hartzaileak bere adostasuna ematen die hori dela-eta Sarien zenbatekoan gertatzen diren aldaketei.

Era berean, Aseguratzailak Polizaren urteko berrikuntza bakoitzean zer hauek egin ahal izango ditu:

- a) Sarien zenbatekoa eguneratu.
- b) Frankiziei dagokien zenbatekoa eguneratu eta Aseguratuak zerbitzuen kostuan daukan partaidetza kopurua aldatu.
- c) Kasua denean, protesientzat ezarritako estaldura mugaren kopuruak eguneratu.

Sariak, frankiziak eta elkarren artean egindako ordainketak eguneratze hori oinarritzen da Aseguruaren, osasun zerbitzuen kostuak gehitzearen eta Polizak estalitako prestazioen maiztasuna gehitzearen eskema finantzario/aktuarialean dagoen eragina zehazteko behar diren kalkulu tekniko/aktuarialean.

Aseguruaren Hartzaileak Sarietan, frankizietan edo elkarren artean egindako ordainketetan egon diren eguneratze horien berri izaten duenean aukeratu ahal izango du edo Kontratua luzatzea, eta horrek suposatuko du baldintza ekonomiko berriak onartzen dituela, edo aribidean dagoen

urtekoaren mugaegunean amaitutzat eman dezakeela. Azken kasu honetan sinesgarriri jakinarazi beharko dio Aseguratzaileari zentzu horretan daukan borondatea.

11. Artikulua **Hartzailearen edota Aseguratuaren gainerako obligazioak, kargak, betebeharrak edo ahalmenak**

Aseguruaren Hartzaileak eta, kasua denean, Aseguratuak hurrengo obligazioak ditu:

- a) Aseguratzaileari aitortzekoa, honek ematen dion Galdesortaren arabera, berak ezagutzen dituen eta arriskuaren balorazioan eragina izan dezaketen zertzelada guztiak. Betebehar horretatik salbuetsita geratuko da Aseguratzaileak Galdesorta egiteko ez badio eskatzen edo, eskatu arren, arriskuaren balorazioan eragina izan dezaketen arren, Galdesortan agertzen ez direnean.

Aseguratzaileak Kontratua ezeztatu dezake Aseguruaren Hartzailearen isiltasuna edo zehaztasun falta ezagutu duenean hasi eta hilabete barruan hartzaileari bidalitako deklarazioaren bidez. Deklarazioa egiten den unean aribidean dagoen epeari dagokion Sari erlatiboa Aseguratzaileari egokituko zaio, izan ezik bere aldetik engainua edo errua dagoenean.

Aseguratzaileak aurreko pasarteko deklarazioa egin aurretik ezbeharra gertatzen bada, honen prestazioa murriztuko da arriskuaren benetako entitatea ezagutu balitz aplikatuko zitzaionaren eta hitzartutako sariaren arteko diferentziari proportzionalki dagokiona. Aseguruaren Hartzailearen engainua edo errua egon balitz, Aseguratzailea prestazioaren kargua hartzetik aske geratuko da.

Aseguratuaren jaiotze data okerra adierazteko kasuan, Aseguratzaileak ezingo du Kontratua errefusatu Aseguratuaren benetako adina 65 urtetik gorakoa denean baino. Gainontzeko kasuetan, adinaren deklarazio okerraren ondorioz abonatuak saria txikiagoa bada, Aseguratuak diferentzia abonatu beharko du. Era berean, saria handiagoa izatea gertatuko balitz, Aseguratzaileak itzuli beharko du dagokion parte.

- b) Aseguruaren Hartzaileak edo Aseguratuak, Kontratua aribidean denean, Aseguratzaileari eman beharko dio, ahal duten eta arinen, arriskua larriagotzen duten zertzelada guztien berri edo halako izaerakoak direnena non Kontratua burutu zen unean ezagutu izan balitu kontratua egingo ez zen edo beste baldintza astunago batzuetan burutuko zuen.

Aseguratzaileak Kontratua aldatzea proposa dezake larriagotzearen berri eman zaion egunean kontaktatzen hasi eta bi hilabeteko epean. Kasu horretan Hartzaileak proposamenaren berri izan duen egunean kontaktatzen hasi eta hamabost eguneko epea du proposamena onartu edo ezetz esateko. Ezetza den kasuan, edo Hartzailearen isiltasunarenean, Aseguratzaileak, aipatu epea igarotzen denean, Kontratua hauts dezake Hartzaileari alde aurretik horren berri emanda, hamabost eguneko epe berri bat emanda erantzun dezan, eta egun horiek iraganda, hurrengo zortzi egunen barruan, Hartzaileari behin betiko hausketaren berri emango dio.

Aseguratzaileak modu berean Kontratua hautsi ahal izango du arriskuaren larriagotzearen berri izan zuen egunean hasi eta hilabeteko epean Aseguratuari idatziz jakinarazita. Aseguruaren Hartzaileak edo Aseguratuak deklarazioa egin aurretik ezbeharra gertatuko balitz, edo Aseguratuak fede txarrez jokatu badu, Aseguratzailea bere betebeharratik libre geratzen da. Gainontzeko kasuetan, Aseguratuaren prestazioa murriztuko da hitzartutako sariaren eta

arriskuaren benetako entitatea ezagutu balitz aplikatuko zizaionaren arteko diferentziari proportzionalki dagokiona.

- c) Aseguruaren Hartzailleak edo Aseguratuak, Kontratua aribidean denean, Aseguratzailari eman beharko dio arriskua gutxitzen duten zertzelada guztien berri edo halako izaerakoak direnena non Kontratua burutu zen unean ezagutu izan balitu kontratua beste baldintza hobeaago batzuetan burutuko zuen.

Kasu horretan, Sariak estalitako epea amaitzen denean, etorkizuneko sariaren zenbatekoa murriztu beharko du dagokion proportzioan eta kontrako kasuan Hartzailleak Kontratua apurtzeko eskubidea izango du eta halaber arriskua txikiagoa dela jakinarazi zaionean hasi eta ordaindutako sariaren eta ordaintzea egokituko zizaionaren arteko diferentzia itzultzekoa ere.

- d) Hartzaillearen karga da Aseguratzailari jakinaraztea, ahal duen eta arinen, Kontratu hau indarrean dagoen bitartean ematen diren Aseguratuen altak eta bajak.

Aseguratuen altak indarrean hasten dira Hartzailleak edo Aseguratuak egindako jakinarazpen edo deklarazio dataren hurrengo hilabeteko lehenengo egunean, hala egoera berrira egokituko den Sariari dagokionez, nola estalduraren hasierari edo eteteari dagokionez.

Aginduzko Osasunari buruzko Galdesortaren emaitzak ikusita, Aseguratzailleak onarpena ukatu edo bazterketak ezarri ahal izango ditu eta, kasu guztietan, aplikatuko dira Gabezia Aldi Orokorrak edo Partikularrak, egongo balira.

Bizitzako lehenengo hilabetean alta emateko eskatzen zitzaizen seme-alabek, Osasunari buruzko Galdesorta alde aurretik bete ondoren, Aseguruaren estaldura jaiotze unetik bertatik gozatuko dute eta une horretan sortuko da dagokion Saria eta bere kobrantza eskatu ahal izango da alta deklaratzeko den unean. Ez zaio aplikatuko bere amak daukan baino Gabezia Aldi handiagorik.

Jaioberriaren altaren berri adierazitako epean baino beranduagoa ematen bada, Aseguratuen alta arautzen duten arau orokorrak aplikatuko zaizkio.

Edozein arrazoigatik eskatu eta Kontratua indarrean dagoela jakinarazitako Aseguratuen bajak Aseguratzailari jakinarazten zaion unean izango du ondorioa eta Aseguruaren Kontratua luzatzeko kasuan sortzen diren Ondorengo Sariak egoera berrira egokitzea ekarriko dute. Alabaina, Sariaren banaezintasun printzipioaren indarrez, Aseguratuen bajak ez du inolako ondorioz izango jadanik sorturiko Sariari dagokienez, nahiz eta ordainketa zatituta egon Baldintza Partikularretan Hartzaillearen mesedetan.

- e) Ezbeharraren ondorioak gutxitzea, susperraldi azkarra izateko bere eskura dauden baliabideak erabilia. Aseguratzailari kalte egin edo engainatzeko asmo argiarekin egin behar hori ez betetzeak Aseguratzaillea ezbeharretik eratorritako betebeharrak guztietatik askatuko du.

- f) Subrogazioa Legeak ezartzen duen arabera Aseguratzaillearen alde erraztea. Ondorioz, Aseguratzailleak, kontratu honetatik sortzen zaizkion betebeharrak bete ondoren, ezbeharraren ondorioz Aseguratuari dagozkion eskubideak eta ekintzak egikaritu ahal izango ditu ezbeharraren ardura duten pertsonen aurrean asistentziaren gastuak berreskuratzeko xedeaz.

Aseguratuak ezin dira egikaritu Aseguratuaren kontra honek subrogatu dizkion eskubideak. Aseguratuak izango da, bere ekintzekin edo hutsegiteekin, Aseguratuari subrogatzeko eskubidean egin diezazkion kalteen erantzule.

Aseguratuak ez du edukiko subrogatzeko eskubiderik Legearen arabera Aseguratuaren erantzukizunari sorrera eman dioten ekintzak edo hutsegiteak burutu dituzten pertsonen kontra, ez eta Aseguratuarekin hirugarren odolkidetasun maila zibilaren barruko senide, ildo zuzenean edo albokoan, den ezbehar egilearen kontra ere edo Aseguratuaren guraso adopzio hartzaile edo seme/alabatzailea denaren kontra ere. Baina arau honek ez du eraginik izango erantzukizuna engainutik badator edo erantzukizuna Aseguru Kontratu baten bidez babesturik badago. Azken suposamendu horretan subrogazioa bere hedadura mugaturik egongo da aipatu Kontratuaren terminoen arabera.

Aseguratuak eta Aseguratuak bat badatoz hirugarren erantzule baten kontra berreskuraturiko kobrantza bien artean banatuko dute bakoitzaren interesaren proportzioan.

12. Artikulua

Aseguratuaren eta Aseguratuaren beste betebeharrak

- a) Aseguru Hartzaileak eskatu ahal izango dio Aseguratuari, Poliza hartu duenean hasi eta hilabete bateko epean, Polizaren eta Aseguru Eskaeraren edo itundutako klausulen artean dauden desadostasunak konpontzeko. Aipatu epea erreklamaziorik egin barik iraganez gero, Polizan esaten dena onartuko da.
- b) Aseguratuak bermaturiko prestaziorako eskubidea galduko du:
 - 1. Osasunari buruzko Galdesorta betetzean zerbait gorde edo oker esateko kasuan, engainua edo erru larria egon bada.
 - 2. Arriskua larriagotzeko kasuan Aseguruaren Hartzaileak edo Aseguratuak Aseguratuari horren berri eman ez badiu fede txarrez jokatu.
 - 3. Bermaturiko gertakizuna Saria edo kasua denean bere zatia, ordaindu aurretik gertatu bada.
 - 4. Ezbeharra gertatu bada Aseguratuaren fede txarragatik.
- c) Aseguruaren dokumenturen bat horretako eskubiderik ez duen norbaitek erabiltzeak Erabiltzaileari emango dio Aseguratu arduraduna Polizaren estalduratik kanpo uzteko ahalmena, tokatzen diren ekintza zibilei edo kriminalei kalterik egin barik.

13. Artikulua

Aseguruaren iraupena

- a) Aseguru Kontratu indarrean hasiko da, kontrako ituna dagoenean izan ezik, Lehenengo Saria ordaindu eta handik 24 ordura.

- b) Asegurua Baldintza Partikularretan aurreikusten den denbora aldirako hitzartzen da; eta, ezer ezarriko ez balitz, kontratazio urteko abenduaren 31n amaitzen den epealdira arte.

Bere epemugan, Kontratua tazituki luzatuko da urte naturaletan. Hala ere, bi aldeetako edozein jar daiteke luzapenaren kontra beste aldeari jakinarazpen idatzia bidalita lehen epealdia edo hurrengoak amaitu baino bi hilabetekoa baino txikiagoa ez den epearekin.

- c) Polizaren iraungipena Aseguratzaileak formulaturiko salaketaren indarrez izango balitz, ulertuko da Kontratua indarrean egon denean hasi eta asistentzia emandako ezbeharren gaineko Aseguruaren efektuak osatu arte irauten dituztela kasu akutuetan, eta prozesu kronikoetan gehien hogeita hamar egunera arte Poliza iraungi zen egunean hasita.

14. Artikulua

Kontratuaren hausketa eta ezbai gabetasuna

- a) Hausketa. Koadro Medikoa aldatzen denean, aseguruaren hartzaileak kontratua suntsiarazi ahal izango du mugaeguna heldu aurretik, betiere Sendagile Orokorriari edo Familiakoari, Tokologoari, Pediatri edo espezialisten taldearen %50ari eragiten badio; erabakia aseguratzaileari jakinarazi beharko dio gutun ziurtatu bidez.

Arau hori ez da aplikatuko kausa justifikatuak sorturiko ordezkapen iragankorrak direnean edo Teknika Kirurgiko Bereziatako Medikuek, Odontologoak, Analistak eta Erradiologoak direnean.

Aldakuntza horiek suntsiarazteko kausa izan daitezkeenean, Aseguratzaileak bere burua behartzen du horren berri Hartzaileari ematera gertatu eta hurrengo 30 egun naturalen barruan.

Hartzaileak jakinarazpenaren berri izan duenean kontaktzen hasi eta 30 egun naturaleko epean erabili ahal izango du suntsiarazteko eskubidea.

Kontratua suntsiarazteak ondorioa izango du Hartzailearen gutun ziurtatuaren bidez emandako jakinarazpenaren berria hartzen duen datako hurrengo hilabeteko lehenengo egunean, eta Aseguratzaileak kontsumitu gabeko Sariaren zenbatekoa itzuli beharko dio.

- b) Ezbai gabetasuna. Azterketa medikoa eginda balego edo eskubide osoak onartuak baleude, Poliza eztabaiaezina izango da Aseguratuaren osasun egoerari dagokionez eta Aseguratzaileak ezingo dizkio ukatu bere prestazioak Kontratuaren burutze dataren aurreko gaixotasunak daudela alegatuta, izan ezik beren beregi eta aipatu azterketaren ondorio gisa, Polizaren Baldintza Partikularretan salbuespena egiten denean, edo eritasuna edo afekzioa Aseguratuak Galdesorta-Aitorpenean engainuz ezkutatu duenean.

Azterketa medikoa egin ez balitz eta eskubide osoak ere onartu ez balira, Poliza eztabaiaezina izango da Kontratua indarrean hasi zenetik urtebete igaro denean, izan ezik Hartzaileak edo Aseguratuak engainuz jokatu duenean.

15. Artikulua

Izaera Pertsonaleko Datuen Tratamendua

Datu Pertsonalen Babesari buruzko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat, Aseguru Kontratuari buruzko 50/1980 Legeari jarraikiz, jakinarazten dizugu osasun laguntzako zerbitzuen kostua zuzenean hartzeko aseguruaren polizaren kontratazioa IGUALATORIO MÉDICO QUIRÚRGICO, S.A. DE SEGUROS Y REASEGUROSek (IMQ) garatu, bete, kontrolatu eta betearaz dezan, IMQk beharrezkoa duela zure hartzaile datuak tratatzea, bai eta aseguratuak datuak ere, osasun datuak barne (hala nola, aseguruak kontratatzeke eta eskatutako eta/edo egindako jarduketara medikoetarako, osasun aseguruarekin estali nahi diren horietarako eskatzen diren osasun datuak); tratamendu horrek barne hartzen du zure datuak fitxategi batean sartzea (IMQren erantzukizuneko) eta, beharrezkoa denean, kontratatutako aseguru polizaren estaltzen diren osasun laguntzako zerbitzuak eman behar dituzten osasun profesionalen esku uztea (sendagileak, osasun zentroak, ospitaleak) laguntza hori emateko beharrezkoak diren datuak; IMQk osasun zerbitzuak ematen dituztenei eskatu ahal izango die hemen aipatzen den datuen tratamendu horretarako behar duen informazioa, kontratatutako aseguru polizaren arabera eskatzen edo jasotzen den osasun laguntzari buruzkoa.

Aseguru kontratuaren bidez kostua estalita duen osasun prestazioa edo prestazio medikoa eskatu edo jasotzean eta/edo poliza berritzean, hartzaileak (i) onartzen du espresuki berak emandako datuen -berek nahiz aseguratuak- tratamendua egitea eta datu horiek eta kontratatutako aseguru poliza betetzean sortzen direnak uztea, halaber, hemen adierazitako moduan kontratatu den aseguru polizaren bidez kostua estalita duten osasun zerbitzuak ematen dituztenen esku ere; eta (ii) adierazten eta bermatzen du hartzaileak IMQri jakinarazi edo jakinaraziko dizkion datu pertsonalen titular guztien baimena duela, hau da, kontratatutako aseguru polizaren aseguruena, datuen tratamendua egiteko hemen azaldutako moduan, eta jakinarazi dizkiela haiei dokumentu honetan datuen tratamenduari buruz adierazten diren alderdi guztiak eta kontratatutako aseguru polizaren edukia.

IMQren erantzukizuneko datuen tratamenduan, sartu, zuzendu, deuseztatu eta aurkatzeko eskubideaz baliatzeko, datuen titularrak helbide honetara jo beharko du: Máximo Aguirre k., 18 Bis, 48011 Bilbo, Bizkaia, eskabideari bere NANaren edo nortasuna ofizialki frogatzen duen beste agiri baten kopia ulergarria erantsita. Dokumentu honetan azaltzen diren datuak tratatu eta lagatzeari uko eginez gero, aseguratuak estaldura bete gabe gelditu liteke ukoak irauten duen bitartean, uko horrek eragozten badio IMQri prestazioak kalkulatzeko eta aseguru kontratuan ezarritako gainerako xedeak eta aplikatzeko den araudiko betebeharrak betetzeko behar diren datuak edukitzea.

16. Artikulua

Kontrola eta erreklamazio eskaerak

Aseguru Hartzailearen, Aseguratuaren, hirugarren kaltetuen edo horietako edozeinen eskubidedunen eta entitate aseguratuaren artean sor daitezkeen gatazkak konponduko dituzte:

- a) Epaile eta epaitegi eskudunek (Aseguruaren Kontratutik eratorritako ekintzak ezagutzeko epaile eskuduna, Aseguratuaren helbidekoa izango delarik).
- b) Era berean, aldeek euren desadostasunak tartekariaren erabakipean jar ditzakete borondatez, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Defentsarako uztailaren 19ko 26/1984 Lege Orokorreko 31. Artikuluko eta bere garapen arauetako terminoetan. Dena den, aldeak tartekaritza sistemaren

pean jartze hori borondatezkoa izango da eta idatziz beren beregi jarri behar da, baina aurreikuspen horrek ez du esan gura inola ere tartekariaren menpean aldez aurretik jartzen denik.

- c) Era berean, eta aurreko pasartean jarritakoari kalterik egin gabe, sortu diren edo sor daitezkeen zuzenbidearen arabera jarrera librekoak diren gai eztabaidagarriak ere jarri ahal izango dira tartekaritzaren pean tartekaritzari buruzko abenduaren 23ko 60/2003 Legearen terminoetan.
- d) Horrez gain, idatzizko erreklamazioak egin ahal izango dira Iguualatorio Médico Quirúrgico, S.A. de Seguros y Reaseguros-en Bezeroarentzako Arreta Departamentuan, bide hauetakoren bat erabiliz:
 1. IMQren bulego batera joanez.
 2. Posta bidez, IMQren helbidera bidalita: Máximo Aguirre kalea, 18-bis, Bilbo (Bizkaia).
 3. Faxez, 94 427 39 37 zenbakira
 4. Posta elektronikoaren bidez, imq@imq.es helbidera

Aipatu Sailak idatziz emango du aurkezten diren erreklamazioak jasotzearen berri eta beti erabakiko ditu arrazoizko idazkiaren bidez.

- e) Erreklamazioa aurkeztutako datatik bi hilabeteko epea igaro baldin bada erabakirik hartu barik, edo eskaeraren onarpena ukatu edo atzera bota bada, Aseguruaren eta Pentsio Fondon Zuzendaritza Nagusiaren aurrean Aseguratuaren defentsarako Mandataria denarengana joan ahal izango da, indarreko legerian aurreikusitakoaren arabera eta bereziki Finantza Sistemaren Erreformarako Neurriei buruzko 44/2002 Legearen arabera, eta halaber finantza zerbitzuetako bezeroaren defentsarako mandatarien Araudia onartzen duen otsailaren 20ko 303/2004ko Errege Dekretuaren arabera ere.

Kontratu honetatik eratortzen diren ekintzek 5 urte igaro ondoren preskribituko dute.

17. Artikulua

Jakinarazpenak

Hartzaileak edo Aseguratuak Aseguratzailari egindako jakinarazpenak Polizan agertzen den Aseguratzailaren gizarte helbidera bidaliko dira; baina Aseguratzailaren ordezkari den Agente bati egiten bazaizkio ere, Aseguratzailari zuzenean egin izan balitzaizkio izango zituen ondorio berak izango dituzte.

Aseguratzailak Aseguruaren Hartzaileari edo Aseguratuari egindako jakinarazpenak Polizan agertzen den hauen helbidera bidaliko dira, helbide aldaketaren berri Aseguratzailari eman zaion kasuan izan ezik.

Artetikari batek, Aseguruaren Hartzailearen izenean, Aseguratzailari egindako jakinarazpenek Hartzaileak berak egindakoek izango lituzketen ondorio berak izango dituzte, izan ezik Hartzaileak kontrakoa adierazten duenean.

IMQ Renta

Aseguru Osagarria

Eguneko errenta ospitalizazioagatik eta
indemnizazioa ebakuntza kirurgikoagatik
Honen kontratazioak baldintza partikularretan agertu behar du.

1. Artikulua

Aurretikoa. Aseguru bataren eta bestearen artikulua komunak

IMQ Renta Polizari aplikatuko zaizkio Osasun Asistentziaren Polizan deskribaturiko hurrengo artikulua, ospitalizazio kasuan indemnitazioei buruzkoak direla ulertuta.

1. Artikulua: Aurretiko
 2. Artikulua: Definizioak (1)
 3. Artikulua: Kontratuaren Oinarriak
 6. Artikulua: Kanpoan geratzen diren arriskuak, 4), 5), 6), 7), 10), 13), 18) eta 22) atalak
 9. Artikulua: Sariaren Ordainketa
 10. Artikulua: Polizaren baldintza ekonomikoak urtero eguneratzea
 11. Artikulua: Hartzailearen edota Aseguratuaren gainerako obligazioak, kargak, betebeharrak edo ahalmenak, d) atala izan ezik
 12. Artikulua: Aseguratuaren eta Aseguratuaren beste betebeharrak batzuk
 13. Artikulua: Aseguratuaren iraupena
 14. Artikulua: Kontratuaren hausketak eta ez bai gabetasuna, b) atala
 15. Artikulua: Izaera Pertsonaleko Datuen Tratamendua
 16. Artikulua: Kontrola eta erreklamazio eskaerak
 17. Artikulua: Jakinarazpenak
- (1) Aseguru honen ondorioetarako, ospitalizazio eta ebakuntza kirurgiko hitzen irispide eta edukia 3. Artikuluan zehazten dira.

2. Artikulua

Definizioen hedapena

IMQ Rentaren ondorioetarako, hurrengo hauek era honetan ulertuko dira:

Indemnitazioa

Aseguratuak jasan duen kalte edo galera konpentsatzeko Aseguratuak egiten duen ordainketa.

Aseguratuaren kopurua

Baldintza Partikularretan bermatuta agertzen diren estalduren arabera ezbehar kasuan Aseguratuak urtean ordaindu behar dituen indemnitazioen gorengo muga den kopurua.

3. Artikulua

Aseguruaren xedea

Polizak hitzartutako muga eta baldintzen baitan, eta kasu bakoitzean tokatzen den Saria ordainduta, Aseguratuak kontratatutako indemnizazioaren ordainketa bermatzen du, Aseguratuak, gaixotasunaren edo istripuaren ondorioz, Osasun Zentro batean denboraldi batean barneratzea edo ebakuntza kirurgikoa egitea behar duenean.

Aseguru honen ondorioetarako hurrengo hitzak era honetan ulertzen dira:

- a) Ospitalizazioa: lagun batek ospitale batean 24 ordu baino gehiago gaixo bezala erregistratuta egon eta ospitaleko ohe batean gaua pasatzea.
- b) Ebakuntza kirurgikoa: Kliniketan 24 ordu baino gehiago egotea eta jarduketara mediko profesionala burutzeko kirofanoa erabili beharra eskatzen duen ekintza.
- c) Abordatze bide beretik ebakuntza bat baino gehiago egiteko kasuan, garrantzi handiena daukana baino ez da indemnitzatuko.
- d) Ebakuntza egin denetik 24 ordu igaro ondoren, beste ebakuntza bat egin beharra balego, bigarren ebakuntza hau berri bezala hartuko da indemnizazioaren ondorioetarako.
- e) Egonaldi egunen zenbaketa, Aseguratuak ospitalean pasatzen dituen gau kopuruaren baliokidea da.

4. Artikulua

Aseguragarri ez diren pertsonak

Ez dira aseguragarriak izango behean adierazten diren eta, beraz, Aseguruaren estaldura kasu batean ere hartuko ez duten hurrengo lagunak:

- a) 14 urtetik beherakoak eta 70 urtetik gorakoak.
- b) Elbarritasun oso iraunkorragatik edozein lanbide edo profesio betetzeko ezgaiturik daudenak.
- c) Erabateko gorrieria edo itsutasuna, paralisia, epilepsia, erotasuna, alkoholismoa edo entzefalitis letargikoa jasaten dutenak eta apoplexia edo delirium tremens erasoak eta, oro har, ohiko bizitza modua baldintzatzen duen edozein lesio edo gaixotasun kroniko edo minusbaliotasun psikiko edo fisiko jasan dutenak.
- d) Nerbio edo buru gaixotasunen tratamenduari loturik daudenak.

Kontratua kasu guztietan geratuko da iraungita eta etenda Aseguratuak 70 urte betetzen dituen urtean. Ondorio bera gertatuko da, Kontratua iragaiten ari dela b) eta c) ataletan aipatzen diren suposamenduetako bat gertatzen denean Polizak estalitako arriskutik eratoritzen ez badira.

5. Artikulua

Kanpo geratzen diren arriskuak

Aseguruaren estalduratik kanpo geratzen dira (1. Artikuluan, hots Aurretikoa: estaldurari ukitzen dioten kanpo geraturiko Arriskuak deritzon adierazitakoez gain) hurrengo zertzeladetariko bat daukaten gaixotasun edo istripuen ondorio zuzena edo zeharkakoa diren ezbeharrak:

1. Kode Penaleko legeak edo aginduak urratzeagatik gertatu direnak.
2. Aseguratuaren axolagabekeriak edo fede txarrak eragindako ezbeharrak.
3. Ohiz kanpoko izaerak, hau da, estaltzea Aseguruaren Konpentsazio Partzuergoari tokatzen zaizkion kausak, produzitutakoak.
4. Edari alkoholiko, droga, estupefaziante, buru nahasmendu edo sonanbulismo eraginaren pean gertatutako lesioetatik eratorriak.
5. Duelu, desafio edo liskarretan gertatutakoak, izan ezik bidezko defentsan jokatzeko denean.
6. Sexu batean eta bestean ernalezintasuna eta antzutasuna konpontzera bideraturiko tratamendua (Kirurgia barne), "in vitro" ernalketa, intseminazio artifiziala, etab. eta haurdunaldiaren borondatezko etendura, eta halaber aipatu tratamenduekin zerikusi duten proba diagnostikoak.
7. Haurgintza normalari edota edoskitzeari asistentzia ematek eratorriak.
8. Diagnostikoa, ebakuntzak, infiltrazioak eta tratamenduak eta, halaber, izaera estetiko edo kosmetiko hutsa duen beste edozein jarduketa. Modu berean, kanpo geratzen dira helburu estetikoak duten ile tratamenduak ere.
9. Bainuetxeetako eta antzeko Zentroetako egonaldietako gastuak eta atsedean sendabideak edo argaltzeak, nahiz eta Fakultatibo batek agindutakoak izan.

6. Artikulua

Estalduraren deskripzioa. Estaldutako arriskuak

Poliza honekin hurrengo estaldurak kontratatu ahal izango dira:

- a) Ospitalizaturik 4 egun iragan ondoren, hau da, bosgarren egunetik aurrera, sortuko den eguneko sorospena, Aseguratuak zaintzen zuen Medikuek edo Zirujauak agindua, urte naturalean gehien 180 eguneko mugarekin.

Dagokion gainsaria aplikatuta, estaldura ospitalizaturiko lehenengo egunera hedatu ahal izango da.

- b) Ebakuntza kirurgikoagatik indemnitazioa; indemnitazioaren kopurua ebakuntzaren izaeraren arabera izango da Poliza honen Eranskinean biltzen den Baremoaren arabera eta kontratatutako urteko muga handienarekin.

7. Artikulua Indemnizazioen kopurua

Estuldurek 3 indemnizazio talde dituzte Aseguratuarentzat aukerakoak eta sari proportzionalekoak izango direnak:

ESTALDURAK	ASEGURATUTAKO KOPURUA		
	I Taldea	II Taldea	III Taldea
Eguneko sorospena ospitalizazioagatik	30,05 €	60,10 €	120,20 €
Urteko Indemnizazio handiena ebakuntza kirurgikoengatik	1.803,04 €	3.606,07 €	7.212,15 €

Indemnizazio handiagoarekin talde batera heltzeko, Aseguratuak gutxienez urte betean egon beharko du aurreko taldean, eta indarrean hasi baino 30 egun lehenago eskatu eta Osasunari buruzko dagokion Galdesorta bete beharko du. Sari berria, kontraturiko indemnizazio berriei dagokiena izango da.

8. Artikulua Gabezia Aldiak

Kontraturiko estaldura guztiak hurrengo Gabezia Aldiei loturik daude:

- 3 hilabete, gaixotasun edo ebakuntza kirurgikoaren kasuan.
Ezbeharrak istripuaren ondorioa denean, gabezia epea baliogabetuta geratuko da eta Kontratuaren efektua Poliza formalizatu den unean bertan hasiko da.
- 12 hilabete, ebakuntza kirurgikoa haugintza distozikoagatik edo edoskitzeagatik denean.

Kasu partikularretan Osasunari buruzko Galdesortaren emaitza gisa, beste Gabezia Aldi batzuk ezarri ahal izango dira edo, kasua denean, dagozkien bazterketak.

Gabezia Aldiak edota bazterketak Aseguratu bakoitzari banan-banan aplikatuko zaizkio.

9. Artikulua Lurralde eremua

Poliza honek bermatzen dituen estaldurak munduko edozein ospitaletan gertaturiko eta beronek estalitako ezbeharretara zabaltzen dira.

10. Artikulua

Ezbeharrak: Jakinarazpena, ondorioak eta indemnizazioa

- a) Hartzaileak edo Aseguratuak ezbeharra ezagutu eta gehien ere 7 eguneko epearen barruan eman beharko dio Aseguratzailari aipatu ezbeharraren berri.

Hartzaileak edo Aseguratuak kasu guztietan eman beharko dio Aseguratzailari ezbeharraren zertzelada eta ondorioei buruzko era guztietako informazioa, eta halaber Aseguratzailak izendaturiko medikuen azterketa eta egiaztapena ere, ezbeharraren norainokoa ahal denik eta ondoen kalkulatzeko.

Era berean, ospitalizazioan alta ematen ez zaion bitartean 10 egun baino luzeagoa ez den aldizkakotasunekin bidali beharko dio Aseguratzailari Ospitalean ingesaturiko egoeran irauten duela egiaztatzen duen ziurtagiri medikoa.

Betebehar horiek ez betetzeko kasuan, Aseguratzailak erreklamatu ahal izango ditu deklarazio ezak eragindako kalte-galerak, izan ezik ezbeharraren berri beste bide batetik izan duenean. Informazioa ez emateko betebeharrean engainua edo erru larria egongo balitz, indemnizaziorako eskubidea galduko da.

- b) Indemnizazioa kobratzeko, Hartzaileak edo Aseguratuak hurrengo dokumentu justifikagarri hauek bidali beharko dizkio Aseguratzailari:

1. Ospitaleko altaren eta bajaren parteak.
2. Aseguratuaren tratatu duen Medikuen informe zehatza, aplikaturiko tratamenduaren, ospitalizatu beharraren eta, egongo balitz, luzapenaren berri ematen duena.
3. Ebakuntza kirurgikoaren kasuan, burutu duen Zirujauaren informe medikoa, ebakuntzaren izaera eta zertzeladak adierazten dituenak.
4. Aseguratzailak eskatzen dituen eta ebakuntza ezagutu eta zehazteko zentzuz beharrezko diren gainerako informe guztiak.

- c) Ezbeharra egon dela jakin eta bere ondorioak zehazteko behar diren ikerketak eta peritazioak bukatu ondoren, Aseguratzailak indemnizazioak ordaindu beharko ditu. Ebakuntza kirurgikoaren indemnizazioa denean, idatziz eman beharko dio Aseguratuari bere kopuruaren berri, ebakuntzaren izaeraren eta Polizan bilduriko Baremoaren arabera.

Aseguratzailak kasu guztietan ordaindu beharko du berak ezagutzen dituen zertzeladen arabera zor duenaren kopuru txikiena dena, ezbeharraren deklarazioa hartu duen egunean hasi eta 40 egunen barruan.

- d) Aldeen artean adostasunik ez dagoen kasuan alde bakoitzak Peritu Mediko bat izendatuko du, eta hauen onarpena idatziz ekarri beharko da.

Aldeetariko batek izendapenik egin ez balu, egitera beharturik egongo da berea izendatu duenak eskatzen dion datan hasi eta 8 eguneko epean eta epe horretan ez egiteko kasuan, beste aldearen Perituak igortzen duen ebazpena onartzen duela ulertuko da eta ebazpen horri lotuta geratzen da.

Perituak adostasunera heltzen diren kasuan, ekitaldi elkartu batean islatuko da, non idatzita geratuko diren ezbeharraren kausak, kalteen balorazioa eta indemnizazioaren zehaztapenean eragina duten gainerako zertzeladak eta zenbatekoaren proposamena.

Bi Perituen artean adostasunik ez dagoenean, bi aldeek izendatuko dute hirugarren Peritu bat ados jarrita, eta hori lortzen ez bada, izendapena tokiko lehen auzialdiko epaileak egingo du, borondatezko jurisdikzio ekitaldian eta Judiziamendu Zibilar buruzko Legean Perituen zakuratzeko aurreikusitako tramiteen arabera.

Aho batez edo gehiengoz harturiko Perituen irizpenaren berri aldeei berehala eta zalantzarik barik emango zaie eta aldeentzat loteslea izango da, izan ezik Aseguru Kontratuari buruzko Legean seinalaturiko epeetan eta baldintzetan inpugnazioa egiteko ahalbidea dagoen kasuetan.

Perituen irizpenari inpugnazioa egiten bazaio, Aseguratzailerak artikuluko honetako c) atalak aipatzen duen kopuru txikiena ordaindu beharko du eta inpugnaziorik egiten ez bazaio, Perituen seinalaturiko indemnizazioaren zenbatekoa 5 eguneko epean ordainduko du.

- e) Erasozina gertatu den indemnizazioaren zenbatekoa ordaintzeko orduan Aseguratzaileraren atzerapena egon delako, Aseguratuak judizialki eskatzera beharturik egongo balitz, dagokion indemnizazioa %20an gehituko da urte bakoitzeko, eta kasu guztietan prozesuarekin Aseguratuari sortutako gastuen zenbatekoarekin.

15. Artikulua

Izaera Pertsonaleko Datuen Tratamendua

Datu Pertsonalen Babesari buruzko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat, Aseguru Kontratuari buruzko 50/1980 Legeari jarraikiz, jakinarazten dizugu osasun laguntzako zerbitzuen kostua zuzenean hartzeko aseguruaren polizaren kontratazioa IGUALATORIO MÉDICO QUIRÚRGICO, S.A. DE SEGUROS Y REASEGUROSEK (IMQ) garatu, bete, kontrolatu eta betearaz dezan, IMQk beharrezkoa duela zure hartzaile datuak tratatzea, bai eta aseguratuaren datuak ere, osasun datuak barne (hala nola, aseguru kontratatutako eta eskatutako eta/edo egindako jarduketa medikoetarako, osasun aseguruarekin estali nahi diren horietarako eskatzen diren osasun datuak); tratamendu horrek barne hartzen du zure datuak fitxategi batean sartzea (IMQren erantzukizuneko) eta, beharrezkoa denean, kontratatutako aseguru polizaren estaltzen diren osasun laguntzako zerbitzuak eman behar dituzten osasun profesionalen esku uztea (sendagileak, osasun zentroak, ospitaleak) laguntza hori emateko beharrezkoak diren datuak; IMQk osasun zerbitzuak ematen dituztenei eskatu ahal izango die hemen aipatzen den datuen tratamendu horretarako behar duen informazioa, kontratatutako aseguru polizaren arabera eskatzen edo jasotzen den osasun laguntzari buruzkoa.

Aseguru kontratuaren bidez kostua estalita duen osasun prestazioa edo prestazio medikoa eskatu edo jasotzean eta/edo poliza berritzean, hartzaileak (i) onartzen du espresuki berak emandako datuen -berek nahiz aseguratuarenak- tratamendua egitea eta datu horiek eta kontratatutako aseguru poliza betetzean sortzen direnak uztea, halaber, hemen adierazitako moduan kontratatu den aseguru polizaren bidez kostua estalita duten osasun zerbitzuak ematen dituztenen esku ere; eta (ii) adierazten eta bermatzen du hartzaileak IMQri jakinarazi edo jakinaraziko dizkion datu pertsonalen titular guztien baimena duela, hau da, kontratatutako aseguru polizaren aseguratuena, datuen tratamendua egiteko hemen azaldutako moduan, eta jakinarazi dizkiela haiei dokumentu honetan datuen tratamenduari buruz adierazten diren alderdi guztiak eta kontratatutako aseguru polizaren edukia.

IMQren erantzukizuneko datuen tratamenduan, sartu, zuzendu, deuseztatu eta aurkatzeko eskubideaz baliatzeko, datuen titularrak helbide honetara jo beharko du: Máximo Aguirre k., 18 Bis, 48011 Bilbo, Bizkaia, eskabideari bere NANaren edo nortasuna ofizialki frogatzen duen beste agiri baten kopia ulergarria erantsita. Dokumentu honetan azaltzen diren datuak tratatu eta lagatzeari uko eginez gero, aseguratuen estaldura bete gabe gelditu liteke ukoak irauten duen bitartean, uko horrek eragozten badio IMQri prestazioak kalkulatzeko eta asegaru kontratuan ezarritako gainerako xedeak eta aplikatzekoa den araudiko betebeharrak betetzeko behar diren datuak edukitzea.

12. Artikulua

Ebakuntza kirurgikoagatiko indemnizazioak

Aseguratutako kopuruaren gainerako portzentaia (%)

Kirurgia Orokorra

1. Burua eta sama

Bozioa, enukleazioa	%18
Bozioa, estrumektomia	%25
Frenizektomia	%6

2.- Abdomena

Abzesu intrakabitariora	%6
Abzesu perianala	%4
Minbiziagatik ondestearen mozketa aldi batean	%45
Minbiziagatik ondestearen mozketa bi alditan	%60
Naturaren kontrako uzkia	%18
Uzkie ixtea	%15
Porto Cava Anoastomosia	%45
Apendizektomia	%18
Heller Kardioespasmoa eta antzekoak	%25
Kolektomia	%40
Kolezistektomia	%25
Kolezistostomia	%18
Koledokotomia	%25
Koledokuduodenostomia	%40
Enteroanoastomosia	%25
Hestegorria, kartzinomagatik mozketa	%60
Esplenektomia patologikoa edo traumatikoa	%25
Abdomeneko ebentrazioa	%18
Uzkiko pitzadura	%10
Gastrektomia partziala	%35
Gastrektomia osoa	%45
Gastroenterostomia	%20
Gastrostomia	%18

Gastrorrafia (zulaketa akutua)	%18
Hemorroidea (osorik osatzea)	%12
Eten sinplea, berritua, urkatua, hestearen mozketarekin edo mozketarik barik	%18
Eten bikoitza	%21
Abdomeneko laporotomia	%14
Hestearen leherpena	%30
Pankreaktektomia	%50
Pankreatitis akutu hemorragikoa	%25
Pilorooplastia	%25
Ondesteko polipoa	%6
Onesteko prolapsoa	%12
Gibeleko kiste hidatidikoa abdomen bidetik	%25
Organo trinkoen haustura	%25
Errai hutsen haustura	%21

3.- Gorputzadarrak

Anputazioak:	
Besoaren, besagainaren edo eskuarena	%15
Eskuko erpuuarena	%10
Eskuko gainerako atzamarrena	%8
Oineko behatzarena	%8
Izterraren bernaren edo oinarena	%15

4.- Besteren batzuk

Abzesu hepaticoa	%20
Antraxa klinikan anestesia orokorrarekin	%10
Dibertikulo sakro-koxigeo	%12
Flemoi zirriborotsua gorputzadarretan	%9
Gangliktomia estelarra edo torakolunbarra	%25
Gongoilak, hustuketa erregionala	%15
Mastektomia	%15

Traumatologia

1. Toraxa eta sorbalda

Lepauztaia, eskapula eta saiheitsak (odoltsua)	%15
--	-----

2. Besoa

Ukondoa	%8
Ukondoa (odoltsua)	%16
Sama edo humeroaren diafisia	%8
Sama edo humeroaren diafisia (odoltsua)	%16

3. Besagaina

Kubitua, erradioa edo eskumuturra	%8
-----------------------------------	----

4. Eskua

Metakarpoak eta falangeak (odoltsuak)	%8
---------------------------------------	----

5. Bizkarrezurra

Orno gorputzak:	
Desbideraketarik barik	%10
Desbideraketarekin	%18
Muineko lesioekin (odoltsuak)	%45

6. Mokorra eta pelbisa

Pelbiseko eraztuna:	
Zatikien desbideraketarik barik	%10
Zatikien desbideraketarekin	%25
Kotiloa pelbis barruko bihurdurarekin	%35
Mokorra, ebakidura miaketarekin	%55

7.- Izterra

Izterrezurra	%15
--------------	-----

8.- Berna eta belauna

Maleoloak	%8
Maleoloak (odoltsua)	%12
Belaunburua	%6

9.- Oina

Kalkaneoa, Astragaloa	%10
Kalkaneoa, Astragaloa (odoltsua)	%21
Falangeak, eskafoidea eta metatartsoak	%8

10.- Bihurdurak

Lepauztaiko akromioa (odoltsua)	%15
Mokorra	%21
Ukondoa	%6
Humeroko eskapuloa (odoltsua)	%25
Belauna	%8
Tartso-bernazaki peroneoa, astragaloa edo oina	%8

11.- Ebakuntzak eta ortopedia

Azetobuloplastia	%45
Eskumuturreko artrodesia	%25
Belauneko edo oineko artrodesia	%15
Lepauztaiko edo mokorreko artoplastia	%45
Sorbaldako edo ukondoko artoplastia	%25
Eskumuturreko artoplastia	%15
Atzamarretako artoplastia	%6
Belauneko edo orkatilako artoplastia	%24
Belauneko Kapsulotomia	%12
Mailu-hezurdun atzamarraren erauzketa	%6
Karezko ezproiaren erauzketa	%8
Osteosintesiaren erauzketa materiala	%6
Hallus valgus, ebakuntza zuzentzailea	%12
Meniszektomia	%15

Sorbaldako edo humeroko osteotomia ez-birakaria	%18
Eskumuturreko osteotomia zuzentzailea	%10
Bernako osteotomia	%18
Dupuytren ahur uzkurdura	%21
Eskumuturreko sinobiektomia	%8
Belauneko sinobiektomia	%15
Zainen giltzadura	%15
Txertodun tenoplastia	%15
Akilesen tenotomia eta luzadura	%8
Birlanaketa tendinosaok	%15

Ginekologia eta Tokologia

1.- Ginekologia

Umetokiko idunaren mozketa	%18
Aurreko kolporrafia, zistozelea	%15
Kolporrafia bikoitza, aurrekoa eta atzekoa	%21
Kolpotomia, Douglas sarbidetik	%8
Eranskinen erauzketa	%25
Bartholino guruinaren erauzketa	%9
Besikula-maginako fistula	%15
Ondeste-maginako fistula	%15
Histerektomia azpi-totala	%25
Histerektomia totala	%35
Laparotomia ikerlaria	%14
Umetokiko legradoa biopsiaren bidez	%6
Mastektomia galtzarpeko hustuketarekin	%25
Mastektomia sinplea	%15
Umetokiko iduneko polipoak eta papilomak	%6
Obarioko kistea	%18
Maginako kistea	%6
Magina artifiziala	%30
Bulbektomia sinplea	%12
Bulbektomia adenektomiarekin	%20

2.- Tokologia

Zesarea	%35
---------	-----

Kirurgia Kardiakoa

Bihotzeko kirurgia irekia gorputzez kanpokoarekin	%100
Taupagailuak:	
Barruan ezartzea	%30
Kanpoan ezartzea eta berrezartzea	%25
Ebakuntzak aortaren hertsaduragatik	%90
Ebakuntzak Fallot tetralogiagatik	%90
Ebakuntzak estenosi mitral-itxiagatik	%75
Perikardiektomia perikarditisagatik	%90

Kirurgia Torazikoa

Bronkioan gorputz arrotza	%15
Biriketako dekortikazioa	%70
Drainatze torazikoak, puntzioak izan ezik	%15
Enukleazioa, kistektomia endotorazikoa	%70
Saihets hormako tumoreen exeresia	%35
Mediastinotomia endotorazikoa	%70
Fistula bronkiarraren konponketa kirurgikoa	%70
Biriketako Erresezioak	%70
Torazentesia	%6
Torakoskopia drainatzearekin	%15
Torakostomia	%35
Torakostomia miatzailea	%35

Kirurgia Baskularra

Goiko cava zaineko kirurgia	%50
Hemorroideak	%12
Goranzko aorta femoralaren txertaketa	%50
Txertaketa extra anatomikoak, subklabia salbu	%25
Loturak:	
Mako safenoa tronboflebitisagatik	%15
Zain zulatzaile isolatuak	%6
Errebaskularizazioak:	
Aneurisma enbor handietan	%50
Arteria periferikoak	%25
Arteria periferikoak enbolektomiarekin	%21
Kerotida primitiboa	%50
Erraietakoa	%50
Saihetsaren erresezioa	%25
Arteria periferikoen apurketa traumatikoa	%10
Sefenektomia aldebakarra	%15
Sefenektomia aldebikoa	%21
Sinpatektomia lunbarra edo torazikoa	%21

Neurokirurgia

Aurreko alboko abordatzea	%50
Kirurgia, hurrengo hauena:	
Minarena, extereotaxiarekin zein gabe	%45
Hidrozealiarena	%60
Malformazioena	%60
Burezurreko pareak - mikroneurokirurgia	%60
Garuneko konmozioa	%10
Bentrikuluaren drainatzea	%12
Buruaren haustura, ornoetako traumak	%10
Laminektomia	%50

Malformazioak:	
Buru barruko hodierna	%70
Arterietako aneurismak	%70
Neurolisiak	%18
Buru barruko prozesu zabalkorrak	%75
Sinpatektomia torazikoa	%40
Ornomuineko traumak	%40
Traumatismo buru entzefalikoa, seinaleekin	%10
Ornomuineko tumoreak (odoltsua)	%60

Oftalmologia

Blefaroplastia handia	%12
Katarata, protesia ezarrita	%21
Katarata	%15
Ziklodialisia edo diatermia	%10
Dakriostomia edo dakrioszitorrinostomia	%15
Erretina askatzea. Tratamendu osoa	%21
E nukleazioa edo ebiszerazioa	%10
Estrabismoa, Tratamendu osoa	%15
Legrtange Elliot Eskleroiridektomia	%15
Iridektomia antiglaukomatosoa	%10
Irido kapsulotomia	%10
Kronlain Orbitotomia	%25
Ptosis parpebrala	%12
Keratoplastia zulatzailea. Tratamendu osoa	%25
Keratoplastia ez zulatzailea. Tratamendu osoa	%21
Keratomia erradiala. Tratamendu osoa	%21
Orbitaren simblefaron berriztatzea	%15
Erresezio optiko ziliarra	%10
Sinblefaron handia autoplastiarekin	%10
Zuringo transplantea	%25
Iriseko tumoreak edo kistea	%15
Bitrektomia porteriorra pars leunarekin	%35
Bitrektomia sinplea	%20

Kirurgia Plastikoa Konpontzailea

Distantziako dindirria eskugainean edo ahurrean	%15
Farisgostoma bat ixtea	%15
Gorputzadarretako eraztun itxurako brida zuzentzea	%10
Orbainak zuzentzea	%10
Dindirriagatik atzamarraren uzurdura konpontzea	%10
Sudur okerrunea, zuzenketa estetikoak	%15
Orbitaren exanterazioa edo txertaketa	%10
Ginekomastia	%10
Graneoplastia	%10

Hurrengo hauen txertaketak:	
Gorputzadarrak, toraxa eta abdomena	%18
Ultzerak	%10
Betazalak	%10
Masail edo bekoki erdia	%10
Aurreko edo atzeko aurpegiaren erdi librea	%10
Larru, koipe eta abarrekin betetzea	%10
Azaleko partziala Scalpen	%6
Plastia ertainak	%6
Erbi-ezpain aldebakarra	%10
Mamoplastia, murriztapen aldebakoa	%15
Mamoplastia, murriztapen aldebakarra	%12
Sudurra aulkian txertoarekin edo gabe	%10
Polidaktilia	%10
Aurpegi paralisia	%10
Belarri hegalarren berreraiketa osoa	%15
Begi zakuen hondoaren berreraiketa	%10
Goiko ezpainaren berreraiketa osoa	%15
Betazalaren berreraiketa osoa	%8
Ezpainen berreraiketa partziala	%10
Betazalaren berreraiketa partziala	%10
Beheko masailezurraren erresezioa	%10
Dindirri bilotsuen birlanaketa	%10
Foku osteomielitikoaren tratamendua	%10

Urologia

Zakil mozketa	%10
Gorputzeko harri arrotzak zitoskopiaren bidez	%8
Irendura tumoreagatik	%15
Irendura aldebakoa	%12
Irendura aldebakarra	%8
Zirkunzisia fimosiagatik	%4
Zistostomia	%15
Zisto-prostatobesikulektomia erradikala	%40
Kolpozistozelea	%15
Dibertikulu besikalak	%30
Entero zisto plastiak	%45
Epidodomektomia	%15
Tumoreen erauzketa endoskopikoa	%21
Flemoi urinosoa	%12
Hidrozele aldebakoa	%12
Hidrozele aldebakarra	%8
Zakilaren hipospadiak/zuzenketa	%10
Lunbotomia	%15
Maniobra endoskopikoak, harri erauzketa	%12
Nefrourektetomia osoa	%40
Nefrektomia	%40

Nefrostomia	%15
Nefrostomia nefrolitotomia perkutanea	%25
Azaleko ebakuntza uretero-enterostomia	%40
Ebakuntza ureteralak eta uretero-errenoskopia	%18
Orkidopexia aldebakarra edo aldebikoa	%21
Pieloplastia	%35
Pielotomia	%30
Gernubideko prolapsoaren eszisioa	%4
Prostatektomia aldia batean	%30
Giltzurruneko kistea	%30
Prostataren erresekzio transuterala	%30
Idun besikalaren erresekzioa	%25
Gernu jarioaren tratamendua	%18
Uretero zisto neostomia	%30
Uretero sigmoidestomia	%30
Ureterolitotomia	%30
Uretoplastiak, deribazioa barne	%30
Uretrostomia	%12
Barikozelea (aldebakarra, aldebikoa)	%10

Kirurgia Maxilo-Faziala

Artoplastia	%10
Hurbiltasun dindirriaren itxitura konplexua	%10
Sama, zakatzeko kistearen erauzketa	%6
Eragindako zubia	%4
Gorputz arrotz sakonen erauzketa	%4
Samaren diseekzio erradikala	%40
Eszisio bermiloia	%10
Masailpeko guruinaren erauzketa	%10
Zentimetro bat baino lesio handiagoak	%6
Hodi tiroglosoko kistearen erauzketa	%6
Tumore txar edo arin txikiaren erauzketa	%6
Ateratze seriatuak	%6
Faringoplastia	%15
Fenestazioa, haginak barne	%4
Fistula oro-sinusala edo sudur-ahokoa	%15
Pitzadura palatino partziala	%15
Masailboko haustura, murrizketa odoltsua	%8
Goiko barailaren haustura	%8
Masailboko haustura, murriztapena eta inmobilizazioa	%8
Sudurreko hezur edo kartilagoen haustura	%8
Kopetaren haustura	%8
Glosektomia osoa	%18
Gingiboplastia osoa	%10
Gingibektomia osoa	%6
Gingiboplastia partziala	%4
Hipertrofia maseteroa	%4

Mukosaren txertoa	%6
Hezur albeoloaren txertaketa	%10
Maxilektomia partziala	%12
Makroglosia, murrizketa	%10
Osteoradionekrosia, hezur erresekzioa	%10
Kokotseko osteotomiak	%10
Aurpegi paralisia	%15
Parotidektomia osoa	%10
Masailezurreko prognatismoa	%10
Protidektomia osoa babesik barik	%12
Belarri hegal aldebikoaren Plastia	%6
Mukosaren plastia	%6
Kiste edo tumore arina, erresekzio muskularra	%15
Masailezurreko eretrognatismoa	%10
Mihi-azpikoa, marsupializazioa	%21
Azpi maxilektomia	%12
Azpi maxilektomia eta erresekzio erradikala	%21
Tumore txarra, masailezur edo maxilarraren erresekzioa	%21
Masailezur edo maxilarraren bestibuloplastia	%10